



ARGIA



ARGIAK 25 URTE INTERNETEN

**Bide berrien
bila, etengabe**

2.803 | 2022 / 12 / 04 | 4,00 €



Uraren aldeko borroka Argentinako Andean

12 | INGURUMENA



“Ama Zarautzen zuten preso eta aita Tarbeseko kontzentrazio eremuan”

16 | BEGOÑA OLABEAGA



“Euskaraldia ez da txapa bat jartzea soilik”

34 | KIKE AMONARRIZ

KUTXABANK EUSKARALDIAREKIN HITZEZ EKITEKO GARAIA

Euskaraz egunero

2022ko azaroaren 18tik, abenduaren 2ra

kutxabank
HEMENDIK.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: SHU OTERO

Iritziak

- 21 | IRATI LABAIEN
- 22 | ANE ABLANEDO
- 21 | ARKAITZ ZARRAGA
- 23 | MAIALEN ARTEAGA
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | BEÑAT IRASUEGI

Finkoak

- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
MIREIA ALDUNCIN
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



46 | NEREA IBARZABAL

Bigarren finalurrekoa jokatu da azaroaren 26an Baionan. Datorren larunbatean Bilbon jokatu da azkenekoa eta han erabakiko Iruñeko finalean Maialen Lujanbiorekin arituko den zazpikotea. Baionakoa bukatu berriren Elixabet Etxandik elkarrizketatu du Nerea Ibarzabal.

OHARRA: jai egunak tarteko, hurrengo astekarian ez da elkarrizketa joango baina argia.eus-en irakurgai egongo da abenduaren 5 goizetik aurrera.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | URAREN KONKISTA

Meatzaritzako multinazionalen kontrako borroka Argentinako Andeetan

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | BEGOÑA OLABEAGA

“Ez dakit nondik ateratzen genuen aurrera egiteko indarra”

Miel A. Elustondo

26 | ARGIAK 25 URTE INTERNETEN

Puntuz puntu, sarea indartzen

Itsaso Zubiria

34 | EUSKARA | KIKE AMONARRIZ

“Ahalduntzea ez dadila Euskaraldiarekin amaitu”

June Fernández

38 | NAZIOARTEA | ROJAVA

“Egoera kritikoa da Rojavako iraultzarentzat eta Kurdistango Askapen Mugimenduarentzat”

Amaia Lekunberri

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Lide Iraola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soruluz, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA




ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Nunca mais?

20 urte pasa dira Prestigeren milaka tona petroliok Kantauri itsasoko hondoak, urak, animaliak, eta bazterrak belztu zituela. Ondorioak oraindik ere ikusgai ditugu Euskal Herriko kostaldean. Galiziako istripuak zamaontzien zenbait segurtasun neurri zorrozteko balio izan bazuen ere, arazoaren oinarriak bere horretan darrai: Fisterrako golkotik 40.000 bat itsasontzi pasatzen dira urtero, herena merkantzia arriskutsuz beteta, eta batzuk petrolio bano kaltegarriagoak diren substantziekin beteak, tartean kloroa bezalako industriarako produktu kimikoekin. Izan ere, COP27 Klima Aldaketari buruzko goi bilerara ez da alferrik joan petrolioaren eta gasaren multinazionalen ordezkari andana.

 Ocean Rebellion-eko kideen protesta Londresen pasa den astean Nazioarteko Itsas Erakundearen egoitza aurrean. **ALASTAIR GRANT / AP**

 **AXIER LOPEZ**



CUT THE
TIES TO
FOSSIL
FUELS





ARGIA 57. DURANGOKO AZOKAN

2022ko abenduaren 7tik 11ra

ARGIA eta Bizi Baratzea guneak

Artekale 19-20-21-22
(informazio gunearen ondoan)

Inor ez da ilegala eta Lurra herriari deika guneak:

Durangoko alde zaharreko Andra
Mari elizaren arkupeetan

Jakoba Errekondoren solasaldiak

Abenduak 10, 18:00etan,
"Ilargiaren Egutegia".

Abenduak 11, 11:00etan:
"Ilargia eta landareak 2023, urteko
lanen agenda"

Garbiñe Larrearen solasaldia

Abenduak 11, 17:30ean,
"Sendabelar baratzea".



Zubietako erraustegia gelditzeko eskatu dute

 ZERO ZABOR

3.000 pertsona inguru bildu dira Donostian GuraSOS elkar-tearen deia erantzunez, Gipuzkoako agintariei eskatzeko gelditu dezatela Zubietan hiri hondakinak erretzen dituen erraustegia.

Amailerako hitzaldian antolatzaileek agintariei eskatu diete, ikusirik zer nolako hutsak eta akatsak dauzkan instalazioak, jendeen osasuna eta ingurumena bermatzeko, geldi dezaten erraustegia. Eta gai hau eztabaidatzeko hitzordua eskatu diote publikoki Markel Olano Gipuzkoako foru diputatu nagusiari. Zerrendatu dituzte erraustegiak jada erakutsi dituen hutsak. Erreketaren beroarekin argia sortzeko instalazioa ondo ez dabilenez, erraustegiak ez du hondakinik balorizatzen. Behin eta berriro itzali eta piztu ari dira eta urtean hiru piztaldi beharko lituzkeen instalazioan 86 aldiz egin dituzte, justu une horietan sortzen duenean kutsadurarik handiena. Zubietako erraustegiak labeak homologatu gabe dauzka, hasieratik dabilta gaizki "eta ondorioz ingurua dioxinaz bete dute".

Erraustegiaren ur zikinek ihes egitea bermatu behar zuen sistema estankoak ere huts egin du erraustegian, jarraitu du GuraSOSe, eta horren eraginez bere pozoiak isuri ditu Arkaitzerrekara, hortik Orian barrena itsasoraino bidaliz. Uren pozoiketa hori aztertzen ari dira jada Donostiako bi epaitegitan, baina arduradunek "orain isuri toxiko hori desagerrarazi egin nahi dute. Nola? Añarbeko saneamendu sarera punpatu eta hortik Monpa-

setik barrena Zurriolako hondartzaraino bidaliz". Aipatu dute ere ToxicWatch fundazioak erraustegi inguruetan aurkitu duen pozoiketa maila handia.

Gipuzkoako Ingurumen diputatua eta erraustegiaren jabea den GHKko lehen-dakaria den Jose Ignacio Asensiok he-dabideei gezurtatu egin die Zubietan inolako deskontrolrik eta kutsadurarik dagoenik. ToxicWatchen txostenaz esan dio *Berriari* "GuraSOS, EH Bildu eta hala-ko taldeek erabili ohi duten manipulazio politikoa" dela eta errealitatea "gezurrekin desitxuratzen" dutela, "herritarrak izutzeko". Horretaz gain, "Europako araudiak ezarritako mugaren %94 azpitik egon dira 2021ean", esan du errauste plantaren inguruan aurkitutako dioxina kantitate handiei dagokienez. Gaineratu du "egunero" neurtzen direla datu horiek, eta, horrez gain, "Biodonostiak ere ikertzen dituela".

Eusko Jaurlaritzatik Arantza Tapia Industria eta Ingurumen sailburuak Legebiltzarrean erantzun behar izan die erraustegiaz egindako galderei. Miren Gorrotxategi Elkarrekin Podemos-IUren legebiltzar-kideak galdekututa, Tapiak erantzunean aitortu du erraustegiak ez duela sistema automatikorik partikulen kontzentrazioa onartutakoaren gainetik (150mg/Nm3) denean labeari hondakinak jaurtitzen segi dezala eragozteko. Tapiak bere garaian GHK-k esandakora jo du erantzunean: "Atmosferara egiten diren isurketei dagokienez, ez dago errektuntzan automatikoki eragiten duen kontrolrik". ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Inoiz ez



UXUE APAOLAZA LARREA

Pandemian gure jabetzetan itxi gintuztenean entzun genuen askotan, parentesiena. Parentesi bat gure bizitzan, eta gero jarraituko omen genuen gure bizitzekin. Denbora ezin da gelditu ordea, ez du ortotopografiaz gehiegi ulertzen, eta parentesietan gertatzen denak bizitza osoa baldintza dezake. Eta parentesi moduan hartu izan dugu kartzela ere.

Azken urteetan izan ditugu kartzelako bizitza hurbildu diguten lanak, ea kristalaren beste aldean bizi izan garerok behingoz barrukoaz jabetzen ginen. Baina titular hutsean geratzen ari dira kartzelatik irten-sartu batzuk. Zarata gutxi atera dute, ezintasunaren isla, akaso. Iragan batzuk ez dira hain iragan, epe biografikotan ari baikara, eta gure biografietan, gauza asko banalizatu genituen. Jendea hiltzea banalizatu genuen (jende xumea), tortura eta kartzela. “Zenbat urte pasa ditu kartzelan?”, eta erantzuna hiru urte bazen, “bueno, ez da hainbeste” pentsatzera iritsi ginen. Nolabait lasaitu behar, agian. Pentsa. Nola ez da hainbeste izango? Hiru urte kartzelan betiko da, edo izan daiteke.

Eta nola ez ditut ulertuko hil zizkieten senideekin zer gertatu zen jakin nahi dutenak. Baina ez genituzke zauriak ixteko behar diren errelatoak lasaiago josiko kartzelaren mehatxurik gabe? Zertan laguntzen du bizitza puskak erauzten jarraitzeak? Bata ez banalizatzeko bestera jolastu behar dugula sinestaraztea hain da krudela. Ez dira gure ondoan irekitzen diren parentesitxoak, kartzelaratua eta hurbileko jendea txikitzen dituen makinaria psikopata bat da. Ez ditzagun banalizatu bizitzak txikitzen dituzten praktikak. Ez dezagun egin: inoiz ez. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Presoak

Ia bederatzi hilabete dira Pablo Gonzalez kazetari euskalduna Polonian atxilotu zutenetik. Joan den astean, Oihana Goiriena emazteari lehen aldiz eman diote bisitarako baimena. Beste hiru hilabete luzatu berri diote behin-behineko espetxealdia Gonzalez.

Mercedes

Mercedeseko hauteskunde sindikaletan, greben aldeko sindikatuak saritu dituzte langileek, eta aurkakoak zigortu. ELA-LAB-ESK blokeak %24,5eko igoera izan du eta 14 ordezkari 18ra pasa da; UGT-CCOO-Ekintza-PIM blokeak %30,9 galdu du, eta 17 delegatutik 11ra pasa da.

Euskaltzaindia

Itxaro Borda idazlea eta Andres Alberdi hizkuntzalaria euskaltzain oso izendatu dituzte. Itxaro Bordak Xarles Videgainen hutsartea beteko du eta Andres Alberdik Andoni Sagarnarena. Orain, zortzi hilabeteko epea dute biek sarrera-hitzaldia prestatzeko.

Deseraikitzen



ULA IRURETAGOIENA

Azaroak hitzaldi eta jardunaldiz blai utzi gaitu. Hiria eta arkitektura gaiak jo dutenetan, energia eta orotariko baliabide materialen kontsumoaren gaineko ardura agertu dute, bizi ditugun hilabeteen sintonia bat bezala, zirrikitu guztietan presente dagoena. Audientzia ikusita batzuetan ematen du badagoela eraldaketarako oinarriren bat mugitzen eta besteetan ezetz, zuzentasunez hitz hutsak direla edota kapitalaren trikimailu bat batzuk gehiago pobretzeko gutxi batzuen poltsikoaren mesedetan.

Aretoan eskua altxatu du norbaitek eta galdera bota du: posible al da eraikin bat jasangarri izatea? Harrigarria bada ere, informazio gutxi daukagu ezer esateko, eta edonola ere, erantzuna azalpenez eta ñabarduraz josita legoke. Orain arte bi lan ildo nagusitu dira: arrotzeria eta energia berriztagarrien teknologia hobetzen eta bioklimatikako diseinuko teknika pasiboak eraikinetan txertatzen. Ematen du eraikuntza-ikerketaren hurrengo urratsa izango dela, eraikuntza-materialen "trazabilitatea" egitea, hots, material bakoitzaren produkzio, garraio eta eraikuntzak sortzen dituen CO2 isurketa eta aztarna-ekologikoa zenbatzea, eta zehaztea zein eragina duen gure osasunean material bat arnastu, ukitu eta inguruan dugunean. Eta garrantzitsuena: bildutako informazioa komunikatu. Zigarro paketeen osasun-ondorioak ageri diren bezala, sintetikoa den material baten ondorio-katea ikusgarri egitea funtsezkoa da balorazio bat egiteko.

Eraikin jasangarriaren errezeta itxi bat eskuratzeko aldera, batzuetan sinplifikazio zakarretara iritsi gara, adibidez, egurrez eraikitzea jasangarria dela esateraino. Aguakatea elikagai jasangarria dela baieztatzea bezalakoxea. Nola, nondik eta abar luzea aztertu behar erantzuteko. Baina ziurtasuneko erantzun bat behar bada, hemen bat: itsas labarrean eraikitzea ez da sekula jasangarria izango –ez eraikitzea erantzunik jasangarriena da– eta toki baten eraikuntza-material eta material-ezagutzaren maparekin lortu dezakegu bide posible bat egitea. ●



IREKIA

Jaurlaritza, espetxeez faltsukerian?

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Eusko Jaurlaritzak espetxe eskumena hartu eta urtebetera, egindako bidearen balorazio oso baikorra egin du Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean, azaroaren 16an: "Pauso azkarrak, luzeak eta seguruak eman ditugu".

Jaurlaritzak helburu nagusi bat ezarri zion bere buruari eskumena hartzean: presoen %40 egotea 3. graduari, erregimen irekia delako birgizarteratze datu onenak ematen dituen. Irailaren 26an, Zaballako Arabako espetxean, Artolazabalek nabarmendu zuen bere sailaren lanari esker helburu horretatik "oso hurbil" gaudela EAEko espetxeetan. Datu zehatzik ez zuen eman, ordea.

Sailburuak azaroan Legebiltzarrean emandako datuen arabera, 1.562 preso daude Basauri, Martutene eta Araba espetxeetan, eta horietatik 441 daude 3. graduari. Kopuru horiek hartuta, matematikak dio %28,2koa dela 3. graduari dagoen preso kopurua. Jakina, subjektiboa da %40ko helburuarekiko 11,8 puntuko aldea (%29,5) "oso hurbil" egotea den edo ez, baina beste datu batek lagundu dezake neurria hartzen: Espainiako Espetxe Erakundearen datuen arabera, 2021eko urrian, Jaurlaritzak eskumena hartzean, %27,03 ziren 3. graduari zeuden presoak. 1,17 puntuko igoera, beraz. Ez dirudi hain baikorki baloratzeko moduko datua. Agian Jaurlaritzak ez ditu aintzat hartzen behin-behinean preso dauden 181 pretsonak portzentajeak ateratzeko orduan. Ez litzaidake zuzena irudituko, presoak baitira finean, epaiketa edo kondena gabe preso gainera, baina kontuak horrela aterata %31,93 lirateke 3. graduari presoak egun, eta 2021eko urrian eskumena hartzean, %31,22. Hau da, %40ko helburuarekiko aldea gutxiago litzateke, 8,07 puntu, baina aurrerapena are mantsuagoa, 0,71 puntuko igoera –eta %31tik %40ra pasatzea ez da horren erronka handia–. Berriz ere: ez dirudi hain baikorki baloratzeko moduko datua.

Zerrendatu zituen lorpenen artean, honako hau ere azpimarratu zuen Artolazabalek: urtebetean Jaurlaritzak hamabi etxebizitza "gaitu" dituela ziurtatu zuen, "100 presori" aukera ematen diotenak zigorra espetxetik kanpo betetzeko: sei Araban, hiru Gipuzkoan eta 3 Bizkaian. Bizkaiko eta Gipuzkoako egoera ez dut ezagutzen. Baina, Arabari dagokionez, etxebizitza horiek funtzionamenduan zeuden jada Jaurlaritzak espetxeen kudeaketa hartzerako. Aldea da lehen Aldundiaren ardurapekoak zirela, eta eskumenaren transferentziarekin Jaurlaritzak hartu dituela bere gain. Jaurlaritzak ez du Araban bederen etxebizitza berririk "gaitu", "gaituta" zeuden aurretik.

Zailtasun propio eta heredatuak ez dira gutxi, eta urtebete epe estuegia da, akaso, epaitzeko "pertsone zentroan" jarri nahi duen "euskar espetxe eredu" berraren ezarpena –bide batez, horra oximoron borobila: "pertsone zentratutako espetxea"; hala ere, denak eraitsi bitartean, ongi etorriak espetxeak presoentzako bizigarriago egiten dituzten neurriak–. Baina zintzotasuna, datuak ez bihurritzea eta errealitatea ez desitxuratzea, gaurdanik exijitu beharreko zerbait da. ●

1.954 milioi

euro merkeagoa litzateke Burgos, Araba eta Nafarroa lotzen dituen tren soziala, AHT baino. Alternatiba hori aurkeztu dute tren sozialaren aldeko elkarteek eta Adif-eko sindikatuek.

37

bikote osatu dira aurten Gipuzkoan, Urretxindorra proiektuaren baitan. Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden 10 eta 14 urte arteko haur migratzaileak eta haien mentore izan nahi duten ikasle helduagoak (goi mailako ikasketak egiten ari direnak) elkartzen ditu proiektuak.

%99

iruzurra dira Black Friday eguneko beherapenetan, OCU Espainiako Kontsumitzaileen Elkarateak salatu duenez. Online enpresa handien 16.000 produktu ikertu ditu OCUk.

“Fiskaltzaren jarrerak, euskal presoak etxera itzultzeko bidea oztopatzeko, ez du mugarik”

SARE HERRITARRA

Plataformak salatu du “argudio faltsuak” erabiltzen ari direla euskal presoek hirugarren graduak atzera botatzeko.

2022-11-22



“EUSKARAZ BIZI NAHI DUTEN HERRITARRENGANAKO GUTXIESPENA ERAGITEN DU IRUÑEKO UDALAK”

“Udalak nirekin euskaraz” kanpaina abiatu dute Iruñeko euskalgintzako kolektiboek eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak.

2022-11-22

“Nafarroako Erriberako nekazarien ekoizpenaren %99 Europako iparraldera doa”

SUSTRAI ERAKUNTZA

Makroetxaldean aurkako Nafarroako Plataformak eta hainbat taldek antolatu duten manifestazioaren atarian egin ditu adierazpenak.

2022-11-25



TEKNOLOGIA

Hezkuntzarako baliabide digital libreak



DIANA FRANCO

Hezkuntzak bilatzen du pertsonak bizi duten mundua ulertzeko eta eragiteko baliabideak ematea. Mundua ez da estatikoa eta aldatzen doa, beraz hezkuntzan dabilzatenak munduaren aldaketak zelan jaso eta ikasleei zelan bideratu bilatzen dute, hezkuntzaren espazioa eta gizartearen espazioa ahalik eta gertuen egon daitezzen.

Enpresa munduan berdina gertatzen da, beti aldaketak sustatzen dituzten botereei pulstua hartzen geure bizi eta proiektuetan izan dezaketen eragina murrizteko, egokitzen gabiltza.

Hau da bizitzarako erakutsi diguten mantra: egokitzea, eraldatzea oso konplexua delako. Hau da hezkuntzan eta enpresan askok bizi dugun errealitatea.

Egokitzea ez da zertan negatiboa izan, norberaren erabakia denean. Baina noraino erabakitzen dugu, eta noraino gaude bideratuak?

Digitalizazioarekin berdina gertatzen zaigu, eta kompetentzia digitala izateko, arrakala digitala gainditzeko... pertsonak zelan izan erabiltzaile, zelan egokitu bilatzen da azken finean. Non geratzen da orduan hezkuntzaren helburua: pertsonak bizi duten mundua ulertzeko eta eragiteko baliabideak ematea?

Zein baliabidek ez gaitu bihurtzen erabiltzaile, eraldatzaile baino?

Zein modutan sortu daiteke horrelako logika bat hezkuntzaren munduan non hainbeste ezagutzetan sakontzeko beharra ikusten duten adituek, pertsonen ikuspuntua murriztuta geratu ez dadin?

Eremu digitalari lotuta nik argi dut baliabide digital libreak direla ikasleak mundu digitala ulerrarazteko eta eraldatzeko tresnak eskaintzen dituztenak. Ez dut hain argi zelan txertatu hezkuntzaren munduan. ●

NAZIOARTEA



43 urtez botereari helduta

AXIER LOPEZ

Milioi eta erdi pertsona baino gutxiago bizi dira Ekuatore Ginean. Espainia izan zen kolonizatu zuen Mendebaldeko azken indarra, harik eta 1968an independentzia politiko formala lortu zuen arte. Baina, gaztelaniaz gain, Francoren forma "demokratikoak" ere bertan geratu ziren. Izan ere, independentzia lortu zuen egunetik bi gobernu bakarrik ezagutu dituzte ekuatoreginearrek, biak autoritarioak eta ustelak. Lehenik, Francisco Macias Nguemaren agintaldi odoltsua, eta 11 urte geroago, 1979an, estatu-kolpe baten ondoren, osabaren aurkako Teodoro Obiang Nguemarena. Elite politiko-ekonomikora eraman zuen osabak iloba, eta ilobak boterera heltzean fusilatu egin zuen. Horrela hasi zen 43 urteko historia, monarkiak kontuan hartu gabe, Obiang bihurtu duena boterean denbora luzeena daraman estatuburua munduan. Eta errekorra areagotu nahi du. Joan den astean hauteskundeak izan dira, eta Obiangen alderdiak botoen %96,31 lortu ditu; bigarrenak, Gizarte Demokratiarako Konbergentziak, berriz, ez du botoen %3 ere lortu.

Ez da ezer berria. 2017ko hauteskundeetan, Obiangek botoen %92 eskuratu zituen, 2009an, %95; 2002an, %97; 1996an, %97... Oposizioko ki-deek ekintzaile askoren etengabeko jazarpena, atxiloketa, tortura eta desagerpena salatu izan dute urtetan, baita hauteskundeetako emaitzen manipulazioa ere.

Zura esportatzen zuen herrialde txiki bat izatetik, Saharaz hegoaldeko Afrikako hirugarren petrolio esportatzailea izatera pasa zen. Baina dirutza horrek ez du biztanleriaren bizikaltatea hobetu: ekuatoreginearren erdia baino gehiago urtean 25 dolar baino gutxiagorekin bizi da. Herritarren %70ak pobrezia azpitik bizirauten duen bitartean, buruzagiek luxu apartak dituzte. Adibide gisa, presidentearen semearen bizitza. Teodoro Nguema Obiang Mangué Nekazaritza eta Baso ministro izan zen bitartean, herrialdeko baliabide naturalen arpilatzearekin izugarri aberastu zen. Hala, 2017an, Parisiko Auzitegi Korrekzionalak bahitu egin zizkion Frantzian 2000. urtearen hasieran erositako ondasunak, Ekuatore Ginean "funtsak bidegabe erabiliz eta beste praktika ustel batzuk eginenez" lortutakoak, besteak beste, Parisiko auzorik garestiengan urrez bustitako txorrotak zituen jauregitxo bat edo Rolls-Royce betetako garaje bat. Egun herrialdeko presidenteordea da, segurtasun indarrak bere agindupean dituela. Dinastiaren oinordekotza bere eskutik etorriko omen da.

Tutu Alicante ekintzaile erbesterratu ekuatoreginearrek ustelkeria-mafia bezala definitzen du Obiangen gobernu, eta Erdialdeko Afrikan dagoen diktadoreen klubean sartzen du, "zoritarrez, bere baliabide naturalek ez ezik, sarritan Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa bezalako nazioarteko erakundeek ere diruz sostengatuak". ●

“Berriztagarriak, ze irizpiderekin?”

 ARABA BIZIRIK

GASTEIZ / Irudian ikus daitekeenez, Araba Bizirik plataformak haize errota itxurako giza kate bat antolatu zuen azaroaren 26an. Gasteizko kaleetara eramanda ikusarazi zuten 200 metroko dorre hauen dimentsioa, “mendien industrializazioa eta herri lurren jabetzea” helburu duten proiektuak salatzen. “Berriztagarriak, ze irizpiderekin? Erronkak eta erantzunak landa-eremutik” mahai-ingurua ere antolatu zuten.



Erreferenduma

Erresuma Batuko Auzitegi Gorenak ebatzi du Eskoziako parlamentuak ez duela independentziari buruzko galdeketa legeak egiteko eskumenik, ezinbestekoa dela Westminsterreko parlamentuaren onspena. Demokrazia ukatuko ez dietela erantzun du Eskoziako lehen ministroak.

Korsika

Martxoaren 21ean zendu zen Yvan Colonna preso korsikar independentista, 61 urterekin, beste preso baten partetik pairatu zafraldiaren ondorioz. Heriotza ikertzeko batzordea sortu du orain Frantziako Legebiltzarrak. Gehienik sei hilabete iraunen du prozedurak.

ZUZENKETA

Joan den asteko Panoraman infograma atera genuen, Qatarreko Mundu Kopak orain arte eragindako lan heriotzekin. Gaizki irudikatu genuen hildako kopurua, The Guardian-en arabera ez baitira 1.500, gutxienez 6.500 baizik.

+  ...



Berriatua
Elizateko
Udala

Gehiago.
Gehiagorekin.
Gehiagotan.



T. 946 137 030
F. 946137027

Herriko Plaza, 1
48710 Berriatua-Bizkaia

www.berriatua.org

URAREN KONKISTA

MEATZARITZAKO MULTINAZIONALEN KONTRAKO BORROKA ARGENTINAKO ANDEETAN

Ura baliabide preziatua bada, are gehiago da Hego Amerikako txokorik lehorrenetan dagoen Argentinako Mendoza eskualdean. 2019an herritarren errebolta batek lortu zuen meatzaritzako multinazionalak hango ur apurrak zianuroz ez kutsatzeko lege bat aurrera ateratzea. Baina estraktibisten atzaparrak ez daude urrun, eta eskarmentua eman aldera, mugimendu haren protagonistetako bat auziperaturik dago: Nora Moyano, Ur Garbiaren Aldeko Mendozako Asanbladako militante ezaguna. Hau da uraren konkistatzaile berrien kontrako borroka baten historia.

 URKO APAOLAZA AVILA

70 urtetik gora ditu Nora Moyanok eta auzitara eraman du Argentinako Mendoza eskualdeko justiziak, hainbat senatari “bahitzeagatik”. Irakurleak pentsa lezake *fake* bat dela baieztapen absurdu hori, ez dugula iturri egokira jo, baina bai, inputaturik dago. Ez ordea diputatuak “bahitzeagatik”, baizik eta Mendozako herritarrek duela hiru urte uraren defentsan lurralde legebiltzarra sinbolikoki inguratzeke egindako ekintzaren arduradun izateagatik.

Ingurumen aktibista ezaguna Argentinan, gaur egun irakasle jubilatua, Nora Moyanok urteak daramatza Mendozako Ur Garbiaren Aldeko Asanbladan, Hego Amerikako toki hartan hain eskasa den ura babesteko lanean. 2019ko abenduan ur baliabideak babesten zituen legea aldatu eta *Zianuro Legea* deiturikoa onartu zuen Mendozako Legebiltzarrak –ofizialisten eta peronisten gehiengoarekin–, baimena ematen ziena multinazionaleri zianuroa, azido sulfurikoa,

merkurioa eta beste sustantzia toxiko batzuk modu masiboan erabiltzeko meneralak erauzteko.

Hiriburuan eta probintzia osoan piztutako herritarren altxamendu handi batek hankaz gora jarri zuen agintarien asmoa. *El agua de Mendoza no se toca* (Mendozako ura ez da ukitzen) lelopean milaka lagun irten ziren kalera eta egun askotako mobilizazioen –eta poliziaren errepresioaren– ondoren, legea bertan behera utzi behar izan zuten. Nora Moyanori leporatzen diote protesta horietan, abenduaren 17an Mendozako Legebiltzarra inguratu zuten manifestariak akuilatzea eta egoitza barruan zeuden senatariak “bahitzea”. Fiskala ez den beste inork ez du sinesen halakorik, noski: “Eromen bat da, EPOC [Biriketako Gaixotasun Burtxatzaile Kronikoa] eta enfisema ditut, ez nago legebiltzar oso bat bahitzeko moduan”, azaldu dio *El otro* Mendozako hedabide autogestionatuari. Baina, bai, hiru urte geroago inputaturik jarraitzen du, eta bere kontrako akusazioa

kentzeko eskaera atzera bota du fiskalak berriki. Orain *Norita*-ren –hala deitzen diote Argentinan– kausa uraren aldeko mugimenduaren aldarri bilakatu da: *¡Si tocan a Nora, tocan al pueblo!* (Nora ukitzen badute, herria ukitzen dute), oihukatzen dute.

HARRIA EGARRI

2019ko abenduko protesta horiek euren begiz ikusi zituzten inguru haietara bidaiari joandako hiru euskal mendizalek. Akonkagua mendi mitikoa igotzeko asmotan, oso urrun ez dagoen Mendoza hirian suertatu ziren egun nahasi horietan Ander Ibaguren eta Unai Segurajauregi legazpiarrak eta Julen Agiriano eskoriatzarra. *Akonkagua, harria egarri* dokumentalean jaso dituzte han bizitakoak. Ez da mendi igoera baten kronika soila, protesta haien atzean dagoen uraren problematika azaltzen du filmak, eta aldi berean, klima larrialdia noraino ari diren sumatzen Andeetan.

Lehorte ikaragarriak izaten ari dira azken urteetan mendikateko argentinarrak

EKINTZAILE EKOLOGISTA

Nora Moyanoren kontrako jazarpenak Mendozako ur garbiaren aldeko mugimenduaren ikur bilakatu du. Irudian, Argentinako PTS ezkerreko fronteko diputatu batek berarekin ateratako argazkia: "Ez dugu onartuko bera isilaraztea", dio horrekin batera Twitterren zabalduko mezuan.



aldean, hainbestearino, ezen Akonkagua ondoan dagoen Vallecitos eski zentroak, XX. mende erdialdean elurretako turismoaren epizentro nagusi izandakoak, hamarkada bat daramala itxita prezipitazio faltagatik. Akonkaguara igotzeko kanpalekuak ere kokapenez aldatzen ari dira urik ez dagoelako; glaziarrek atzeraka egin dute nabarmen eta aldaketa urte batetik bestera sumatzen da. Datu bat nahikoa da hori guztia ilustratzeko: hiru mendizaleek urte hartan ez zuten elurrik zapaldu ere egin 6.961 metro dituen eta Amerikar kontinente-garaiena den gailurrera igotzeko.

Baina, dokumentalean aitortzen den moduan, oraingoz dirua duen alpinista atzerritarri ura eramateko arazorik ez dago, ez bada astoz izango da helikopteroz. Arazoa beherago dute, basamortuaren erdian eraikitako Mendoza bezalako gune urbanoetan, Andeetako glaziarretatik datozen urak pilatu

2007an ur garbiaren aldeko mugimenduak mugarririk jarri zuen, 7.722 Legea onartu baitzuen Mendozako Legebiltzarrak, meatzaritzan gai kimiko toxikoen erabilera debekatzen duena

eta ubideen bidez antolatutako baitaude hango hiriak eta nekazaritza guneak. Horregatik ur preziatu hori zaintzeko

kontzientzia aspaldikoa da herritarren artean, are gehiago meatzaritzak mehatxaturiko lurraldean.

BASAMORTUAREN KONKISTA

XXI. mende hasieran, Txilen eta Perun kobreak meatzaritzak harturiko indarraren bultzadaz, hamaika herrialdeko ingeniariak esplorazioak egiten hasi ziren Argentinako Andeen bihotzean dagoen Mendoza probintzian, metal preziatu horren erreserbak zein diren jakiteko. Megameatzaritzako lehen proiektua Laguna del Diamante lakuan izan zen, 3.300 metroko garaieran dagoen Mendozako ur erreserba natural handiengan. 2003an hasi zituzten lehen zundaketak Xstrata eta Mount Isa suitzar eta australiar multinazionalak; baina San Carloseko herritarrek haren kontra altxa ziren eta horren ostean beste hirietan ere meatzaritza proiektuen kontrako mugimendua zabaldu



URAREN DEFENTSA Argentinako Andeetako herritarren aldarrikapen nagusietako bat bilakatu da; 2019an protesta handiak izan ziren Mendozan.

zen, Ur Garbiaren Aldeko Mendozako Asanbladan baturik.

2007an borroka horrek mugarri historikoa jarri zuen, ura babesteko 7.722 Legea onartu baitzuen Mendozako Legebiltzarrak: “Lege hori kontzientziario eta formazio prozesu komunitarioen, mobilizazioen, antolaketaren, eta eztabaida publikoen bidez lortu zen”, idatzi du Patricia Collado Cubut Unibertsitateko irakasleak, Hego Globaleko mugimendu sozialen ikerketak sustatzen dituen TriContinental institutuaren atarian *El nuevo mendozazo. Luchar con todas las fuerzas en defensa del agua* (Mendozakada berria. Indar guztiakin borroka egin uraren defentsan) artikuluan urte horiei guztiei errepasoa egitean.

Baina ordutik hona meatzaritza industriak etengabe mehatxatu ditu

“Inoiz amaitu ez den ‘basamortuaren konkista’ da, hainbeste zain irekietako beste bat gehiago”

Nora Moyano

Mendozako mendi andetarretako urak. Azken urteetan San Jorge proiektua da ezagunena, Las Heras departamentuko Uspallata herri txikiaren ondoan.

Hasieran CoroMoning enpresa kanadarak ustiatu nahi izan zuen hango kobrea eta urrea, gero errusiar kapitalekin osaturiko Aterra taldeak erosi zuen enpresa, eta asmoek hor jarraitzen dute. Ez da hori proiektu bakarra. *No a la mina* (Mehatzeari ez) webgunean begiratzea –albisteez gain, megameatzaritzari buruzko txostenak ere paratu dituzte bertan– nahikoa da ikusteko Argentina luze eta zabalean zer nolako talka dagoen herritarren eta estraktibisten artean; 2019ko protesta jendetsuak ere testuinguru horretan kokatu behar dira.

“Inoiz amaitu ez den ‘basamortuaren konkistaren’ pentsamoldea da, hainbeste zain irekietako bat gehiago”. Halaxe erantzun die Nora Moyanok *Resumen Latinoamericano* hedabidean



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**

94 udal
275.000 biztanleko lurgune euskalduna
elkarrekin bidea eginez
arnasa gara
euskaraz gara



MENDOZAKO GOBERNUA

LAGUNA DEL DIAMANTE

3.300 metroko garaieran dagoen Mendozako ur erreserba natural handiena da. 2003an inguru horretan kobrea erazteko proiektu batek herritarren kontrako jarrera piztu zuen.




baliabide horien ustiaketa kolonialistaz María Torrellas dokumentalgileak egindako galderei –elkarrizketa Youtuben du eskuragarri irakurleak–. Torrellas ezaguna dugu Euskal Herrian, urte askoan bertan bizi eta euskaldundu baitzen –bere berri jakin nahi duenak, 2.612 zenbakian hitz egin zuen ARGIA-arentzat Aрги-Kontra sailean–. Moyanok kazetariari azaldu dio nola agintariak berriz ari diren saiatzeko eremu batzuk 7.722 Legearen babesik gabe uzten: “2019an *Zianuro Legea* historiaren zabortegira bota genuen, baina badirudi ez dutela ikasi eta erasora datoz berriz

ere”. Hori dela eta manifestazio handi bat egin dute joan den urriaren 12an.

Bien bitartean, ur eskasiarekin dagoen arazoa eredu zentralizatzaile batez konpontzeko Mendozako Gobernuak Israelgo Mekorot estatu-konpainiarekin hitzarmena sinatu berri du. Munduan askok famatu du Israel, uraren kudeaketan aurrerakuntza teknologikoak erabiliz egindako lanetatik –ura gatzgabetzeko zentral ugari eraiki ditu adibidez–. Baina Moyanok gogorarazi du Mendozan jadanik badaudela gutxienez bederatzita erakunde urarekin zerikusia duten kontuak ikertzen dituztenak eta

oso gai direnak kudeaketa hori egiteko.

Ez da lehen aldia Mekorotek Hego Amerikan eskua sartzen duela, Paraguain adibidez, aspaldi ari dira salatzeko multinazional israeldarrak baliabide hori “elitizatu” nahi duela, palestinarren kontrako apartheidean arma politiko moduan erabili izan duen bezala. Beraz, uraren kasuan ere –beste baliabide eta energia iturri askorekin egin bezala– munduan barrena dabilta multinazionalak, eta kudeaketa “eraginkorraren” edo “jasangarriaren” etiketapean dator konkista berria. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Begoña Olabeaga

GERRATIK IHESI GERRARA



EZ DAKIT NONDIK ATERATZEN GENUEN AURRERA EGITEKO INDARRA



Ez du bizimodu erraza izan. Abertzale ziren etxean, eta 1936ko Espainiako Gerra Zibilak harrapatu zituen. Ihesi ibili ziren handik hona eta hemendik hara. Behin halako, on beharrez, Belgikara bidali zuten Begoña Olabeaga.

Han zela, Bigarren Mundu Gerra. Handik ere ihesi, Francoren diktadura garaia bizi izan zuen, bizia berregin zuen, kolpez kolpe.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

95 urte bete dizkiguzu agorrilaren 23an...

Ez nuen uste hainbeste iraungo nuenik. Pasatu ditugunak eta gero! Bi gerra-eta, erbeste-eta... hainbeste gauza! Zumaian jaio nintzen ni, aita Guipuzcoano bankuko zuzendaria baitzen han. Gero, Zarauzko bulegoko buru izendatu zuten eta haraxe joan ginen bizitzera. Gerra denborak Zarautzen harrapatu gintuen. Gure ama mutrikuarra zen, eta gure ahizpa zaharrena, Itziar, hantxe jaio zen. Bigarren umea, Joseba, Donostian, eta ondoko Iñaki eta Arantxa, Deban... Ni, txikiena, Zumaian... Gure aita bulegotik bulegora ibili zuten, herririk herri, hura Donostian jaioa zen baina, Kanpanario kalean.

1927an jaio zinen Zumaian, Zarautzen zinen gero...

Baina nahiago nuen Zumaian, eta gure aitak ere bai. Ezagun gehiago genituen Zumaian, bikario jauna, sendagilea, lagunak... Gerra hasi aurretik joan ginen Zarautzera eta, han, nazionalistak ginela esaten ziguten, ez gintuzten ondo ikusten. Gero, gerra garaian, nazionalak Zarautzen sartu baino lehen, gure aitari agindu zioten Bilbora joateko, dirua eramatera, 1936an. Eta, niri, Zarauzko kalean, akordatzen naiz mutilek esaten zidatela: "Zure aita, lapurra!". Holaxe! Etxean entzundakoak-edo izango ziren. Oso ezaguna baitzen gure aita herrian, Patxi Olabeaga.

Bankuko zuzendaria, esan duzunez.

Bai, eta udan madrildarrak Zarautzera etortzen ziren, eta dirua zela-eta, harremana zeukaten gure aitarekin. Orain Argiñano [jatetxea] dagoen tokian, Burgetoko markesak bizi ziren, eta akordatzen naiz nire anaia Joseba eta bere andregaiia haien etxera joan zirela haien bitxiak eta dirua itzultzera. Eta, gero, guri herrian lapurrak ginela esaka! Eta ni lotsatuta! Bederatzi urte nituen orduan. Gerra etorri zen, eta aita Bilbora eramane zuten. Gure anaia Iñaki, Mutrikura joan zen, eta handik Donibane Lohizunera, itsasontziz, ze gure amaren familiak itsasontziak zeuzkan Mutrikun. "Txanbelenekoak", esaten zieten. Hainbeste jende eramane zuten



Begoña Olabeaga Basurko

ZUMAIA, 1927



Mende bateko historia betea du. Lehenik, 1936ko Espainiako Gerra Zibila bizi izan zuen, eta ondoko errepresioa. Donibane Lohizuneko erbestea, eta Belgikako atzerrialdia, hainbat gerrako umeren modura. Han, Bigarren Mundu Gerrak jo zuen. Itzulera Donostiara, Francoren diktadura gorrira. Elbira Zipitria eta Faustina Carrilen ikastoletan hazi zituen umeak. Santo Tomas Lizeoren hastea ezagutu zuen. Sasoi onean zela alargundu zen... "Ez da erraza izan, ez", dio oraindik.

haiek Donibanera [Lohizune]. Ordurako, osaba bat genuen Donibanen, gerra aurretik joana, eta Mutrikuko hainbat jende hartu zuen etxean. Usotegia izena zuen etxeak, bi etxebizitza eta ganbara zituen, eta hemendik joandakoak hantxe egiten zuten lo, lurrean, beste tokirik ere ez zegoen-eta. Eta jateko ere gaizki. Kristorenak pasatu genituen.

Zarautzik Donibane Lohizunera joan zineten ihesi, beraz.

Bai, baina bide luzea egin eta gero. Beste anaia, Joseba, politikan sartuta zegoen, eta Itziarke baserri batean ezkutatu zen lehenengo, baina gero hura ere beste aldera pasatu zen, mendiz. Gu ere mendiz pasatu ginen, Elizondora joan eta Urdazubitik. Gerra sortu zenean ama eta hiru ahizpa Zarautzen gelditu ginen, baina ama atxilotu egin zuten, klaratarren komentuan eduki zuten preso bederatziz hilabetez. Hogeitaka andre atxilotu zituzten. Nazionalistak zirelako! Ama kartzelatik aterazenean, Zarautzik alde egin genuen.

Nola zinen zu, nola zineten hiru ahizpak, ama preso eduki zuten bitartean?

Ahizpa zaharrenak, Itziarrek, zaintzen gintuen. Ni baino hamaika urte zaharragoa zen. Ilea larru-arrasean moztu zioten Itziarri. Berari beste inori ez zioten moztu era hartara ilea Zarautzen!

Ni eskolara joaten nintzen, mojetara, baina itxi egin zuten, eta eskola publikora joan behar izan nuen. Eguerdietan, amari bazkaria eramatera joaten ginen. Beste ahizpa, Arantxa –gaztea zen, hamazazpi urte-edo izango zituen–, falangisten etxeetara joaten zen oheak-eta, garbiketara-eta egitera. Gu plazan bizi ginen, hantxe Guipuzcoano bankua, hantxe kioskoa, eta falangistak eta erreketekak herriren batera sartzen ziren bakoitzean jaialdia egiten zuten. Gure ahizpa Itziar jai haietako batera eraman nahi izan zuten, erakusteko, baina herriko sendagilearen bitartez, Arozena zela ueste dut, halakorik ez egitea lortu genuen.

Zer esan nahi duzu zuen ahizpa Itziar plazan erakutsi nahi zutela?

Ilea moztu baitzioten! Eta huraxe erakutsi nahi falangistek eta erreketek! Ilea larru-arras moztu zioten, eta buruan buruzapi bat jantzita ibiltzen zen. Ilean bat erosten ere saiatu ginen, baina ez genuen inon inguratu, ez Do-

nostian ez inon, eta ilea hazi arte buruzapia jantzita ibili zen gure Itziar. Plazan hainbesteko zarata ibiltzen zuten falangistek eta erreketek, azkenean Aizarnazabalgo baserri batera joan ginen, ezagun batzuen etxera. Eta han ginela, abisua jaso genuen, Zarauzko etxera itzultzen ez baginen, batere gabe geldituko ginela, falangistak eta erreketek gure etxera sartu zirela eta altzariak-eta leihotik botatzeari ekin ziotela. Etxea bankuak gure aitari utzitakoa zen –lehen solairua–, eta jabea bigarrean bizi zen, erreketek-edo hura ere, eta denak gure aurka.

Noiz arte horrela?

Ama askatu zuten arte. Ama kartzelatik 16:30ean irten, eta, laster, trena hartu eta Lasartera joan ginen hiru ahizpok, amarekin. Lasarten Plazaolako trena hartu eta Iruñera. Iluntzeko bederatzietan-edo ailegatu ginen, ez genuen hiria ezagutzen, baina galdetu batari, galdetu besteari, ailegatu ginen Ugartek esandako etxera. Alde Zaharrean zen, San Anton kalea, gogoratzen naiz. "Nondik zatozte?", galdetu ziguten, eta nik, gaztelaniaz: "Zarautzik bota egin gaituzte!"... Gaua Ugarteren lehengusuen etxean egin genuen. Senar-emazteak ziren, seme-alabarik ez zuten; andrea zen Eratsungoa, euskaraz bazekiena. Hurrengo goizean ostatu bila hasi ginen. Lehenengo ostatuan, egunean 14 pezeta kobratu nahi ziguten bakoitzari, baina guk ez genuen hainbeste dirurik. Gure ama tratularia izan, orde, haren familiak Mutrikun taberna eta janaridenda zeukan, eta bazekien tratuan. Eta etxebizitza bat inguratu genuen Merkatarien kalean: gela bat, sukaldea erabiltzeko baimenarekin. Hantxe sartu ginen.

Nola egin ahal izan zenuten aurrera Iruñean?

Ahizpa zaharrenak josten zekien, eta horretan hasi zen lanean. Bigarrena, etxe batean oheak-eta, garbitasuna-eta egitera joaten zen. Ni, eskolara. Erdaraz, jakina, baina nik ordurako banekien erdaraz hitz egiten. Eta maistra ondora etorri zitzaidan eta nondik gentozen galdetu zidan, eta nik dena kontatu nion, hasi eta buka –uste dut maistrak izena zuela Menaia–, eta, berak, berriz, gure berri eman zion Emakume Abertzale Batzari, eta haiek jatekoa-eta ekarri ziguten, eta ni ingan-



detan mendi aldera eramaten ninduten... Emakume haiek oso ondo portatu ziren gurekin. Beste bat ere bazen, Anjel Irigarai [Aingeru], hark ere asko lagundu zigun. Bosgarren solairu batean ginen, eta hegazkinak etortzen zirenean satora jaitsi behar izaten genuen, eta behin, ahizpa erori egin zen, eta hanka hautsi zuen. Eta Irigarai etorri zitzaigun, ahizpa sendatzera. 1937an zen hori.

Hara, Aingeru Irigarai sendagile eta euskaltzale handia.

Bai, eta Iruñean ondo ginen, saltsan ez sartuz gero, behintzat. Hala ere, bizi ginen etxeko andreak esan zigun mesedez ez euskaraz hitz egiteko, beste gela batean guardia zibilak zituela-eta, ostatu hartuta. Horretan ginela, egun batean gizon bat etorri zen, Elizondokoa, erreketez jantzita. Gure aitaren partetik omen zetorren eta joan ginen Elizondora. Han lo egin, etxe eder batean –oso euskaldunak ziren etxe hartakoak–, eta hurrengo egunean, goizean goiz, Urdazubira abiatu ginen.

Beste aldera pasatu zineten...

Eta Urdazubin guardia zibilek nora gindoazen galdetu zigutenean, mendira gindoazela esan genien.

Gora iritsi ginenean, eguerdian, baserri bat zegoen. Han jakin genuen gure aita gure zain egona zela han, baina atzeratu egin ginenez, alde egin zuela berriz. Ama “Gora Euskadi!”-ka hasi zen gajoa, eta beherako bide guztian, berriz,

arrosarioa errezatzen joan zen, Jesusen Bihotzari eskatzen guri laguntzeko. Hala batean, iritsi ginen beste etxe batera, deitu genion aitari Donibanera, eta bila etorri zitzaigun. Eta hura ongi etorria egin zigutena Donibanen!... Behin ere ez naiz toki haietara itzuli. Oroimen txarrak dira, badakizu. Senarrak ere esan zidan behin, joango ote ginen paraje haietara, baina nik ezetz, ez nuela gogoratu ere egin nahi. Eta holaxe.

Eta Donibane Lohizunera iritsi zinetenean zer?

Osabaren etxean bizi izan ginen. Komun bat zen hura! Denak euskaldunak! Egia esan, Donibane dena euskaldunetz beteta zegoen, errefuxiatuz beteta. Euskaraz asko egiten zen garai hartan Donibanen, eta euskaraz konpontzen ginen. Eskolara hasi nintzen, moja eskola batera, baina zen ordaindu beharrekoa batzuentzat, eta debalde besteentzat. Ordaintzen zutenak uniformeak jantzita joaten ziren; besteok, kalekoz. Pareta bat zegoen batzuen eta bestearen artean. Garizuma garaian, mojek usain egiten ziguten, ea haragirik jan ote genuen! Gero, amak Donibanen gela bat hartu zuen, sukaldea erabiltzeko baimenarekin, Rue Tourasse zen, gogoratzen naiz. Ni eskolan, ahizpa zaharrena josten, eta bestea Getarian, hotel bateko lanean.

Aita ere zeuekin zenuten?

Ez, aita harrapatu egin zuten eta Tarbe-



EMAKUMEAK LANEAN

“Frantses kolegioan administrazio ikasketak egin nituen eta, gero, ostalaritza kooperatiban hasi nintzen lanean. Garai hartan emakume asko ari ziren lanean. Orduko Tabakaleran-eta. Gure etxe aurretik hainbeste andre pasatzen ziren, denak lanera, egunero! Lehengoan irakurri zidan Xabier semeak, Arantxa Urretabizkaiaren amak Nerecan dendan nola lan egiten zuen. Hori kategorია! Oso emakume ederra zen”.

PRIMO DE RIVERA

“Ezkondutik nintzenean, kito, ezin izan nuen lanean jarraitu. Kontsuelo Lasarte, beste lankide bat eta hirurok, urte berean ezkondu ginen. Eta ezkondu eta akabo, diru-ordaina hartu eta kalera! Pilar Primo de Rivera, Jose Antonioren arreba neska-zaharrak agindu zuen: ‘Andreak etxera, haurrak izan eta haurrak zaintzera!’. Ez ziguten utzi lanera joaten. 1955ean soldata batekin bizi izan ginen senarra eta bost seme-alabak. Bizi behar zen, soldata batekin!”

Azken hitza

BELAUNALDIA

“Belaunaldi bat da, badoana. Haren lekukotzak behar beste ez behar bezala ondorengotu ez dena. Diren eta ez diren bitarteko eta aberastasun guztiak gure esku ditugunean ere, aintzat hartu gabe betiko joaten uzten ari garena. (M.A.E.)

sen eduki zuten, kontzentrazio esparruan. Tren-errailak garbitzen-eta jarri zuten, beste askorekin batera. Pirinioetan egon zen, hotzik beltzenean. Horretan ginela, apaiz bat etorri zen Mutrikutik Donibanera, Jose Antonio Usobiaga, eta esan zion gure amari: “Hiru arreba dauzkat, eta haiek hartu eta Belgikara noa. Zertan ez da zuen txikia gurekin etortzen?”. Ni, alegia. Gure amak ezetz: “Konponduko gara”. Eta Usobiagak: “Baina han ondo jango du, eta jasoko du hezkuntza, frantsesa ikasiko du...”. Eta burua berotu zion, eta Belgikara ni!

Usobiagarekin eta haren hiru arrebeekin, esan nahi duzu?

Bai. Parisen trenez aldatu eta Bruselara. Han, eskola batera eraman ninduten: ferian nola saltzen diren abereak, halaxe jarri ninduten ni -ez nintzen ni bakarrik, jakina, baziren neska eta mutil gehiago ere-, eszenario batean. Deitu zuten jendea, ea nork zeukan gu etxean jasotzeko borondatea. Ni Hermann Frater izeneko abade kanonigo batek hartu, eta Malinasera eraman ninduen. Hura Flandriako artzapezpikuaren barrutia zen, eta frantsesez gabe, flandrieraz hitz egiten zuten han. Antwerpen

[Anberes] zen hiriburua. Hango gotzain Van Roey eta apaizek Euskal Herriko haurren elkarte osatu zuten. Gorriak eta errepublikarrak beste toki batzuetara joan ziren.

Zu, Malinasera, esan duzunez.

Eta hantxe egon nintzen. Oso argal eta ihar nengoen, batere elikatu gabe. Malinasen, Herentals herritxoan bizi izan nintzen. Haren ondoan, beste herri txiki-txiki bat, Poelkapelle, Flandrian betiere, han eskolara joan nintzen, eta segituan ikasi nuen flandriera, eta euskara eta gaztelania ahaztu.

Ahaztu?

Inorekin hitz egiteko aukerarik ez zuzenean, ahaztu bezala egiten da. Gaztelaniaz idazten ez nekien, euskaraz ere ez, gutun bat-edo idatzi nuen etxera, baina besterik ez. Donostian, Ponsol txapel-denda zegoen aspaldi. Donostiako dendarik zaharrena da, Narrika kalean dago, Sarriegi plazako izkinan. Hango alaba zen Karmele Leclercq, eta bisita egitera joaten zen, edo bidaltzen zuten baten bat, Antwerpenera, begirale, hemengo haurrak nola zainduta zeuden ikustera, baina ondo geunden.

Noiz arte izan zineten han?

Bigarren Mundu Gerra etorri arte, 1939an hasi zen gerra, eta, halako batean, amak erreklamatu egin ninduen, ekartzeko ni etxera, ez zuela nahi ni han gehiago egotea. Eta itzuli nintzen: Hermann Fraterrek berak ekarri ninduen Donibaneraino. Gerratik ihesi irten ginen etxetik, baina, gero, handik ere gerratik ihesi itzuli ginen Donibanera. Eta etxera ailegatu nintzenean, amak: “Zer? Ez dakizula euskaraz ez gaztelaniaz? Flandrieraz besterik ez?” Baina, jakina, segituan jarri nintzen berriz: etxean ez zen euskaraz besterik egiten, eta eskolan, berriz, frantsesez. Hermann Fraterrek frantses eskolan sartu ninduen, baina ordaintzen zutenen artean, uniformea janzen zutenekin batera.

Espainiako gerrak jo zintuzten, Bigarren Mundu Gerrak ere bai...

Ez dakit nondik ateratzen genuen aurrera egiteko indarra. Eta gaur egun ere hortxe dabilta, gerran [Ukraina]. Nola liteke pertsona gaur egun, hainbeste aurrerapen eta asmakizun, hainbeste zientzia eta txerto, hainbeste Marte eta planeta, eta nola liteke!... Besterik zer jakin nahi duzu? Nahikoa esan dizut, ezta?! ●

**Euskara.
Kultura.
Mundura.**

ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

www.etxepare.eus



Preziorik ez duena, ez da

Eskola amaitzean gurasoak haurrari ogitartekoa ekartzeak, zenbat balio du? Ogia eta urdaiazpikoaren prezioak batuta, gerturatuko al ginateke balio justura? Produktuen prezioen baturak ekintza horren balorea islatzen duela esateak badu akatsik; izan ere, badago kalkulazina den balorerik zaintza jarduera horretan.

Balore kontzeptuak askotariko eza-guerak izan ditzake, besteak beste: norbanakook baloreak ditugu, eta ez dute zerikusirik kontu korrontean dugunarekin; gauzek eta zerbitzuek balio edo balore bat dute, hainbatetan, prezioaren bitartez zehazten saiatzen garena; edota balore-merkatuaz ari garenean, aktibo finantzarioez ari gara, zenbaitetan baliorik ez duten elementu ukiezinez, alegia. Zerbaiten balorea adierazteko saiakeran, balioztapenaren eragiketa egin ohi da, eta alderantzizko norabidean, balioztapenak zerbaiti balioa esleitu nahi izan dio hainbatetan (baliorik duen ala ez inporta gabe). Aho-korapiloa dirudien honek, badu bere mamia.

Txikia nintzela, kuriositatez begiratzten nion etxetik gertu genuen harrobiari. Kamioikadak atera ohi ziren autobia bazterretik hondarrez eta harriz beterik. Urteen poderioz, mendixka higatuz zihuan, noski. Gerora ohartu nintzen, higadura hura ez zela berez osatzen, azaleko zauria osatzen den moduan. Hainbat ekonomialarik azaltzen duen moduan, stock naturala fluxu ekonomiko bilakatzten da halakoetan, eta Barne Produktu Gordinean (BPG) jarduera ekonomiko

Zenbat balio du osasun-langileek artatzeko denbora gehiago izateak? Nola neurtu ikasgeletan ikasle talde txikiagoak izango lukeen eragina? Balore horiek estatistiketatik at geratu ohi dira

positibo moduan balioztatzen dira. Baina zein da jarduera horrek sortzen duen benetako balioa? Hamaika adibide aurki ditzakegu ekonomia estraktibistan edota energetikoan, kanpokotasun edo externalitate negatiboen gisan adierazi izan direnak; halaberrez, jendarteak onartu beharreko kalteak. Nola balioztatu mineralen erauzketak utzitako kalte naturalak? Nola bistaratu energia nuklearrak sorturiko eta ehunka urtetan deusezta ezin izango diren hondakinak? Energia mota horren prezioak islatzen al ditu?

Kanpokotasun negatibo horiek leuntzeko alor publikoaren rolararen inguruko askotariko teoriak aurki ditzakegu: esku-hartze gehiago eskatzen dutenetatik hasi eta presentzia minimoa izan beharko lukeela uste dutenetara. Mazzuca-



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

to ekonomialariak gobernuen jarduna hainbatetan produktiboa ez denarekin lotu ohi dela aipatzen du *El valor de las cosas* liburuan. Hainbatetan, alor pribatuan sortutako desorekak leuntzeko ardura hartu izan du: zerga sistemaren bitartez, sektore jakin batzuen jarduna ziurtatuz, baita publikoak diren zerbitzu eta azpiegiturak bermatuz ere. Jardun horiek isla izan ohi dute herrialdeen ongizatearen neurgailua den BPGan, baina gehienetan, gastu izaerarekin. Esaterako, irakasle edota osasun-langile gehiago kontratatuko balira, adierazle hau gehitu egingo litzateke, soldata gehiago ordainduko liratekeelako. Baina, fluxu ekonomiko horrek sor ditzakeen baloreak soldatatik haratago doazela esatea ez da astakeria. Zenbat balio du jendarte osasuntsuago baten aldeko apustua egiteak? Zenbat balio du osasun-langileek artatzeko denbora gehiago izateak? Nola neurtu ikasgeletan ikasle talde txikiagoak izango lukeen eragina? Balore horiek estatistiketatik at geratu ohi dira. Eta ziurrenik, hauek guztiak balioztatzeak, litro erdiko botila batean litro bat ur sartzeko ariketa egitearen modukoa litzateke, hots, ezinezkoa.

Produktiboa ez den hori balioztatzeak zailtasunak dituenez, ekuaziotik kanpo utzi ohi du zientzia deituriko ekonomia inperfektuak. Baina kontuan hartzen ez dugun horrek preziorik ez izateak ez du esan nahi balorerik ez duenik. Ondo daki hori ekonomia feministak; ondo daki hori ogitartekoa besarkada batekin jaso duen haurrak. ●

Haurrek irakatsi ahal baligute...



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

1. Gure bizitzak plazerak gobernatuago izan beharko lukeela esango ligukete. Eta baietz, ongi dagoela errealitateaz jabetzea, eta egin beharrekoa zer den ohartzea, baina zaporea bizitzari dibertimenduak, irriak, denborapasak eta gozamenak ematen diola; eta kendu, betebeharrak. Eta ahanzturik gaudela dirudiela, hain gris eta zurrun bilakatuta.

2. Jolas dezagula gehiago. Bizitzeko manera bat dela, politika bat ia-ia, jolasez bizitzea, ikastea eta haztearena. Hautu bat dela, denak dauka-eta bere alde ludikoa, sormenaren bitartez eraldatu daitekeena, eta errealitatearen alde hori bilatuz edo eraikiz baino ez dugula lortuko geure neurrirako bizitza.

3. Egoteko gehiago gorputzean, eta izateko maizago gorputz huts. Komeniko litzaigukeela burutxo horretatik maizago irtetea, eta sentitzera jarrita egotea, arrazoiaren eta hitzaren erabateko agintepetik urrun. Badagoela beste manera batez eta beste lengoia batzuetan komunikatzea ere, ez hain zehatz behar bada, baina emozioaren intentsitatearekin.

4. Orainean bizi gaitzela. Ez daukagulako oraingo unea besterik, eta une horretan, uneak eskaintzen digunarekin, egin dezakeguna. Eta baietz, badakitela, etorriko denaz ere arduratu behar dela, eta gerta daitekeenaz, baina hainbeste? bizitza orain gertatzen dela, eta hemen, eta gogoratzeko, unean unekoa, eta gero gerokoak.

5. Oso kanporantz bizi garela, eta etena dugula geure baitarako kontaktua,



PAULA ESTEVEZ

zer nahi, desio eta behar dugun askotan ez jakitera iristeraino. Garrantzitsua dela besteak aintzat hartzea, elkarri egokitzea, eta bestearen gustua egiten jakitea, baina norbera izatea, nor bere burua erakustea, eta hori lehenestea ez dela berekoikeria, autoestimua baizik, eta hortik behar duela bakoitzak munduan egoteko kokaleku propioa eraiki, beretik.

6. Bizitzaren erritmo naturala zein den ohartu behar garela. Gauza garrantzitsuek erritmo geldoa dutela, denbora behar izaten dutelako gertatzeko, eta loratzeko. Gu ez garela ohartzen, bizitzatik asko urrundu garelako, bere moduetatik, eta bere zentzutik, baina hala dela, eta erritmo lasaiean baino ezin dela ongi bizi, ongi ikasi, ongi hazi, ongi egon.

7. Harritu bizitzaz. Berreskuratu gertakari berriekiko poza, enigmekiko jakinmina, bizitzarenganako entusiasmoa, gauzak lehen aldiz ikusten dituenaren ilusioa, eta harridura. Dena dakigula uste dugula, eta oso aspergarria dela modu horretan bizitza, ustekaberik batere gabe, dena aurreikusita, dena iragarrita, dena jakinda. Nola bizi daiteke bat, dena ikusita dagoela uste izanik?

8. Izan zaitezte autentikoagoak, eta erakuts ezazue lotsarik gabe zuek bakarrik zareten hori, berezi egiten zaituztena, barruan daramazuena, emateko duzuen. Eta izan gardenak, eta hainbeste galbahetatik pasa beharrik gabe adierazi nahi duzuen hori, argi eta garbi, zeharbiderik gabe.

9. Maitatu beldurrik gabe, erreparorik gabe, izate osoarekin, gogo eta bihotz. Eta ahal duzuen denbora gehiena pasatu maite dituzuen inguratuta, bizitza partekatuz, gauzarik ederrena da-eta laguntasuna.

10. Hartu atsedeen! Oso nekatuta egoten zarete, eta indarberritu beharra dago, bizitzari berriz sutsuki ekiteko.

11. Baina tira, ez duzue egingo, badakigu. Handiuste zarete, eta ez diguzue jaramonik egiten, ezta kontuan hartzen, ohituta gaude. Egin nahi duzuen, baina otoi, utz gaitzazue gu pixka bat bakean, utziguzue gure printzipio hauen arabera bizitzen eta ikasten, eta ez zaitezte hainbete tematu gu zuen bizitza horretarako prestatzen, hori da-eta nahi ez duguna, zuen modukoak bilakatu, edota zuen bizimodu ero horri lotu. Ez zarete eredugarriak. ●



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Lanbrorik ez eztabaida honetan

Dikotomietan oinarritzen diren eztabaidek paisaia lanbrotzen dute. Epe luzeko begirada kamustu, eta arnas luzeko perspektibarekin aritzea oztopatzen dute. Zaila da parean duzun lanbroaz jabetu, eztabaidaren zutabe ezberdinak aintzat hartu eta ondorio edo kontsentsu batera heldu asmoz iritzi bat garatzea, are gehiago, egiaostean oinarritzen den komunikazio garai honetan. Sare sozialetan geroz eta arau eta baldintza gutxiago daude eztabaida giro sano batean emateko, eta hedabideek nekez laguntzen dute baldintzak eskaintzen. Zaila da, bai. Lana eskatzen du, ahalegin berezia, baina egin beharra dago. Are gehiago, herri batentzat estrategikoak eta garrantzizkoak diren eztabaidak baldin badira jokoan daudenak, hezkuntzarena kasu.

Penaz eta kezka bizi dut egoera. Hezkuntza komunitatean urte luzez lanean aritu diren eragile eta kideak elkarri moka, emozioek gidatutako argudioekin, eta parekoak lanbroz hezetutako betaurrekoekin irakurtzen. Eztabaida hezkuntza publikoa vs ikastola dikotomian zokoratuta dago, eta etsaia bitartean, su epeletan eskuak berotzen, gainean begiradarik eta interpelaziorik jasotzen ez duela. Ez naiz hezkuntza esparruan aktiboki militatzen ibili, azken urteetan hezkuntzan eman diren urrats guztiak ez ditut jarraitu, eta horrek, seguru asko

eztabaidaren gako asko ez ulertzera narra, baina gauza garrantzitsu bat bai daukadala argi: etsaia zein den, eta ez diot marko dikotomiko horri bazkarik emango.

Herri bezala erronka izugarria da hezkuntza esparruan adostasun soziala lortu eta lege berri bat egitea. Batetik, hezkuntzak duen balio estrategikoa ukaezina delako, baina batez ere, hezkuntzaren eremutik harago herri eraikuntza aro berri baterako oinarriak jartzeko balio dezakeelako. Duela hiru hamarkada ezarritako legea da egun martxan dagoena, eta hutsune asko ditu: auzi demografikoa, segregazioa, pribatizatze joera, belaualdi berriak euskalduntzeko zailtasuna, kultur transmisioan hutsunea, hezkuntza feministaren gabezia, laiktasunaren auzia... Legea agortuta dago, eta ezin da orain arte bezala jarraitu. Euskal Eskola publiko eta komunitarioaren norabidean jauzi bat suposatuko duen lege berri bat behar dugu.

Hezkuntza tradizio bakoitzaren onena jasoz Euskal Herriko hezkuntza-sisteman fase berri baterako indarrak bildu behar ditugu. Parean daukagun lanbroak ezin digu urruneko begirada oztopatu, herri estrategiaren perspektibaz jardutea ekidin. Ezin dugu aukera pasatzen utzi. Ezin da jauzirik eman arriskurik hartu gabe, konfort egoerak albo batera utzi eta geure onena eman gabe. ●

Futbolaz



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Oso futbolzalea izan nintzen gaztetan, eta orain jasanezina zait. Ez naiz gai izan zehatz identifikatzeko zergatik gertatu zitzaidan, kontu konkreturik ez zen egon eta. Bakarrrik dakit gogaituta amaitu nuela. Jarrera eta portaera desegoki eta nazkagarri askoren meta-letak, eta negozioa lehenesteak sortuko zuten nire egonezina, seguruenera.

Kirol polita da futbola, taldekoa eta kolaboratiboa, baina botereak eta nagusikeriak gizonezkoen futbola bihurtu dute, nire ustez, gizartearen malura guztien ispilu. Esaterako, Qatar aukeratu izanak mundiala jokatzeko argi erakutsi

digu diruak eta interes ekomomikoak agintzen dutela.

Egunotakoak beste kontu batzuk ere ekarri dizkit akordura: zelaietako kantu arrazista eta homofoboak, agresibitatea; jokalaria aberatsek ogasunari egindako iruzurrak; dirutza obszenoak mugitzea; agintariak egoera okerrak estaltzeko erabiltzea, eta federazioek ezikusien eragitea; espektatiba faltsuak eragitea ume eta gurasoen artean; konpetibitate basatia sustatzea haurtzaroan...

Orain badakit zerk eragin zidan arbuioa. Eta oraingo mundialak berretsi dit sentimendua. ●

O, DIY!



BEÑAT MUGURUZA
IRAKASLE ETA
IKERTZAILEA

D *Y: Do it yourself.* Egizu zerorrek, alegia. Edo hik heuk egintzank. Kontzeptu jainkoturik baldin bada gurean, eta bereziki musikaren munduan, horixe da. 90eko hamarkadan egin zuen eztanda inguru hauetan, eta badirudi jarraitzaile asko izaten segitzen duela oraindik ere.

Aldizkari honetan bertan elkarrizketatu zuten duela ez hainbeste musika talde amateur bat, eta lerroburua, klasiko bat: DIY filosofiaren esentzia bilatu nahi zutela; DIYaren sublimazio moduko baten arakatzeko etengabea. Bidea da borroka. Borroka ia bakarra.

Bururatzeko zaidan galdera maltzurra da, baina ziur beraiek bakarrik kudeatuko luketela, koherenteak badira: Zein zen B plana? Edo, bestela esanda, atzetik ufaka sumatuko ote zituzten nazioarteko bira amaigabea antolatzen irrikitan zeuden promotorak –musikari lanaren bizkar aberasteko helburu makurrarekin–, taldearen zuzeneko saio jendetsu andana kudeatuko zuen *management* konpainia bat, salduko lituzketen dozenaka (ehunka?) disko horiek noranahi banatzeko enpresarik,

DIY: Do it yourself.
Egizu zerorrek,
alegia. Edo hik heuk
egintzank. Kontzeptu
jainkoturik baldin
bada gurean, eta
bereziki musikaren
munduan, horixe da

bitartekaririk, zigilurik, diskoetxerik?

Zeren, horietako bakar bat ere ez badago interesatuta, zein neurritan da apustua erradikala, eta ez halabeharrezkoa? Benetan du ikaragarritzko meritua, mende honetako 20ko hamarkadan oraindik musika talde batzuek saldu nahi diguten bezala? Multinazional bat atzetik baduzu, eta zuk uko egin, ez duzulako hark zure lana baldintzatzerik nahi, edo uste duzulako putre diruzale saldo bat baino ez direla... Orduan bai,

orduan ulertzen dut, eta miresten, norbere lanaren ahalik eta alderdi gehien kontrolpean izateko hautua.

Karikatura eginez, edo karikaturarekin segituz, baina errealitate gehiegi urrundu gabe: motibo berezi batengatik –edo fetitxismo hutsagatik– bada ondo, baina kulturaren, artearen, sorkuntza-prozesuaren mesederako al da 300 disko “manufakturatzea” taldeki-deen artean, eskolako plastika ikasgaiaren egongo bagina bezala? Nola aska dezake horrek egilea? Nor ateratzen da irabazten?

Besterik da kolektiboak eratzea, elkarri laguntzeko, babesteko, aterki baten pean aurrera egiten saiatzeko, eta halako adibide ugari ditugu gurean, zorionez: Balio dute, Muku, ZART, Erraia, Taupaka, eta beste bururatzeko zaizkit, eta gehiago izango dira. Baina bestela, DIYaren fantasiako diskurtso horiek, ez al dira ia bertan-goxo huts bat? Ukitu autokonplaziente bat ikusten diot, gutxizaletasunari egindako gorazarrea, gurean oso ohikoa, beste hark zioen bezala. Sentitzen dut, baina, garai hauetan, ez nau konbentzitzen. ●





MONDRAGON

GIZATASUNA
LANEAN

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

MONDRAGON EUSKARAREKIN BAT

BAI

AURRERA

BETI

BELARRIAK PREST, AHOA
BIZI ETA BIHOTZA BERO.
EGUN GUZTIAK ERABILTZEKO
ETA GAURKOA OSPATZEKO.
AURRERA BETI!

www.mondragon-corporation.com



ARGIAK 25 URTE INTERNETEN

Puntuz puntu, sarea indartzen

Mundu digitalean eragiteko, bakoitzak jokatzeko dituz bere kartak. Gezurretan ibili zaitezke, egia esan dezakezu, parekoaren babesik gabe bakarrik aritu, edo talde-lanean egin aurrera. Handira joka dezakezu ala txikira. Edo txikirako kartak edukita handiari ere puntua ateratzea lortu. Mahai-joko horren bueltan dabil ARGIA 1997an internetera jauzi egin zuenetik: bide berriak esploratzeko beldurrik gabe eta zer pentsatua emango duten euskarazko eduki kritikoak ahalik eta gehien zabaltzeko helburuz. Hori guztia proiektua babesten duten milaka herritarri esker.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA 📷 DANI BLANCO

Ordenagailua piztu, telefonoaren kablea zulo batetik bestera pasa, interneten murgildu eta Sareko Argian sartzeko lehen aukera izan genuenetik pasa dira jada hogeita bost urte. Hogeita bost urte kazetaritza egiteko joko-arauak aldatu zirenetik. Baina zertan da gaur egun ARGIAko talde txiki hori eta zein ditu aurrera begirako erronkak?


Txikia den kultura batean, talde txiki bati eragiteko bide berriak ireki zizkion internetek. Egon zen garai bat, duela hamar urte inguru, sare sozialen sorrerarekin, hedabide txikiak handien mailan ikusi zirena jarraitzaile kopuruetan. Sinestezina zen. Sekulako aukera. Baina hamar urte hauetan gurgilak bere martxan jarraitu du eta erakunde eta botereak ondo enkargatu dira hedabide zehatz batzuei finantzazio eta

baliabide gehiago emateaz, berriz ere gailendu daitezeko mundu digitalean. Partida bizi-bizirik da oraindik.

Sare sozialetan pixka bat erreparatzea nahikoa da ikusteko handiek duten boterea, nola dauden antolatuta, nola egiten dioten oihartzuna elkarri... Eta horri aurre egitea zaila da. ARGIAko lantaldeak garbi du hori, garbi duen bezala, ordea, lan txukuna eginez erreferentzialtasuna irabazi eta jarraitzaile berriengana iristeko aukera duela; eragin dezakeela mundu digitalean.

WEBGUNNEKO AZAL BERRIA URTE BERRIAREKIN

Joko-eremua Argia.eus da. Hemen moneiatzen dituz bere kartak ARGIAk, gero eduki horiek sare sozialen bitartez zabaltzeko. Hogeita bost urte bete dituz webguneak, eta azalberritu bakarrik



ez, triapak ere garbitu dizkiote. Zertxobait zaharkituta zegoen administrazio aldetik eta lanerako tresna funtzionalago bat antolatzeko baliatu dira mende laurdenaren efemeriderako egindako webgunearen apainketak (ikus 32. orrialdeko koadroa). Mugikorretatik modu errazean lan egiteko prestatu da, eta erabiltzailearen paperean jarrita ere, gailu horiek oso kontutan hartu dira oraingoan.

Multimedian ari dira jartzen indarrak ARGIAko kazetariak. Azken lauzpabost urteetan asko zentratu dira podcastetan, hori baita gaur egun joe-



ra. Ordura arte gehiago aritu izan ziren bideo-erreportaje estiloan, baina erritmoa bizia da eta aldaketak eskatzen ditu uneoro; partida non jokatzeko den begiratu behar da, tendentzietara ez galdu eta hor espazioa bilatzen saiatu. Plato bat ere estreinatu berri dute *Be-rezkoa Ta Naturala* ikus-entzunezko bezala grabatutako irratsaioarekin, eta aurrera begirako proiektu gehiago ere ari dira prestatzen datozen hilabetetarako. ARGIArentzat estrategikoa den Bizi Baratzea proiektu arrakastatsua formatu honetara egokituta ekartzeko asmoa dago, besteak beste.

Modan dagoen ezertan sartu aurretik, galderak izan behar luke: balio digu gure edukiak eta baloreak zabaltzeko?

Aldaketa konstantea da eta interneten atzean geratzea erraza. Gauza asko abarkatzearekin itsutu gabe, helburua da puntu indartsuenak identifikatzea, hor edukiz eta formaz gauza txukunak egin, berritu ahal den neurrian berritu, eta bisitekin eta jarraitzaileekin egoskortu gabe, eragite horretan jartzea fokua.

Eduki asko sortzen du ARGIAk, papererako bezala webgunerako, eta lortu behar du energia hori optimizatzea, egiten duenari "etekina" ateratzea, herritarrari ikuspuntu kritikoa duten produktuak eskaintzen jarrai-

tzeko formatu anitzetan. Aldizkaria, internet eta multimedia elkar gehiago elikatzean zentratzen dira lantaldeko kideak. Dena proiektu bera da eta baterako egiten den lanak besterako ere balio dezake, sinergiak hobetu eta proiektuak modu integralean diseinatzen badira. Interneten funtzionatzen hasi zirenean bikoiztasunarekin zituzten beldurrak uxatuta, gaur egun papereko erreportaje bat sarerako moldatzeaz gain, erabiltzen dute, adibidez, podcast formatua astekarirako egindako elkarrizketa edo erreportaje batez jarduteko, informazioa gehitze-

ko, beste erreferentzia batzuk emateko, inprobisaziorako tartea edukitze-ko... Eta alderantziz, multimediarako sortutako lanak ere moldatzen dituzte papererako.

ABIADURAREN SAREAN ERORTZEKO ARRISKUA

Abiadura bizian garamatza sareak eta *engantxatu* egiten du. ARGIAk ere izan zuen abiaduraren lehia erortzeko arriskua, “bost sortu baino, hamabost hobe”, pentsatzekoa. Abailan garamatze sare sozialek baina mundu horren aurrean badago beste bat patxada

pixka bateko edukiak ere eskertzen dituen. Hor du ARGIAk indarguneetako bat, eta horregatik, aspalditik apustu egin izan du arnas luzeko kazetaritzaren alde, patxadaz entzun, irakurri eta ikusteko edukiak sortuz.

Oinak lurrean izatea komeni da, eta ondo pentsatu zer eskaini nahi zaion jendeari. Ez da ahaztu behar, besteak beste jarraitzen zaituztela konfiantza ematen diezulako, merezi duten edukiak lantzen dituzulako, eta abiaduraren gurgil zoroan erortzen bazara jarraitzaileak ere horretara eramango dituzu.

1997



1999



2006



2010



2013



2022



WEBGUNEAREN DISEINUA aldatuz joan da urtetik urtera mende laurden honetan. Joera berritzailean kontuan hartuta egin izan dira moldaketak, formatu berriei tokia egin eta edukiak modu ulergarri eta erakargarrian erakusteko helburuz.

Argia izan zuten



HASTAPENAK goiko irudian, ARGIAren on-line bertsioaren eta beste hainbat berrikuntzen aurkezpena 1999an, ametzagaiña taldearen eskutik. Behean, garai hartako erredakzioan lanean; besteak beste 'Euskal kulturaren haria' buletin elektronikoa ere orduan jarri zen martxan.

ALBERTO ELOSEGI / ARGIA



1997 da ARGIAren inflexio puntua. Aste-karia bakarrik egitetik Sareko Argia elikatzerara pasatzen dira. Interneten daude. Urte gutxiren buruan ordura arte pentsaezinak ziren gauzak egiteko gai izango diren mundu batean sartu dira, baina pixkanaka joango dira irekitzen leiho berriak. Oraingoz, digitalizatuta duten informazioa zintzilikatu dute.

Euskal kulturaren eta euskal komunikazioaren esparruan lehenengoetarikoa izan zen ARGIA sarerako saltoa ematen. Ttipi Ttapa hedabidea izan zen bestea. Argia izan zuten, bista, edo zortea.

Dena den, ARGIAren kasuan internetarekin egindako apustua ezin uler liteke Ametzagaiña enpresa taldearen logikatik kanpo. Adur informatika kooperatibak, Antza inprimategiak eta ARGIAk osatu zuten 1997an irabazi asmorik gabeko erakundea, Ekonomia Intereseko Talde forma juridikoaren pean. Gerora gehitu zen lametza Interaktiboa. Zein ziren sorburuko helburuak? Enpresa bakoitzaren berezko jarduera gara-

tzeko lankidetzaz, teknologia berrien ikerketa eta garapena, eta proiektu berriak aurrera eramatea, zeuden sinergiak horretarako baliatuta. Elkartutako hiru enpresen ikerketa eta garapen beharrianak betetzea zen asmoa –eta izaten segitzen du–, euren jatorriko asmoei eutsi eta indartu ahal izateko ezinbestekoa zaien maila teknologikoa lortu ahal izan zezaten.

Erdiz erdi jotzen du interneterako pausuarekin. Teknikoki oso pertsona kualifikatuak zeuden taldean, posible egin zezaketenak proiektu hori, eta, ARGIAk, taldearen babesik ezean, zail izango zuen mundu digitalerako bide hori egin eta Euskal Herrian aitzindari izatea.

ARGIAKO ELKARRIZKETEN HISTORIKOA

1997rako eginak zituzten etxeko lan batzuk. Antza inprenta bera neurri handi batean digitalizazioari lotua zegoen eta haren laguntzarekin osatu zuten ARGIAk urteetan zehar egindako elkarrizketen bilduma, CD-ROM formatuan. Beraz, webgunea prestatu zutenerako bazuten denen eskura zintzilikatzeko lehen materiala. Hortik aurrera, hasi ziren astelehen pusketa batzuk zintzilikatzen –aldizkari osoa ezin izan baitzuten jarri hilabete batzuetan–, ondoren urtelehen edukiak, albisteak, 2007an heldu ziren lehen multimedia lanak, sare sozialak gero, eta argiaren abiaduran gaur arte.

Editoretza sistema, aktualitatearen galbahea

25 urte hauetan internet bera izu-garri aldatu den bezala, bertan jarduteko moduek ere garapen bat izan dute, eta azken aldaketa orain-txe egin dute ARGIAko kazetariak, webguneko eguneroko lan antolakuntzan editoretza sistema berria jarri dute abian urritik aurrera, gogoeta prozesu baten ondorio. Matomo aplikazioak emandako estatistiken arabera bisita kopuruak gorantz egin du orduz geroztik, zenbait egunetan hirukoiztu egin dira.

Enbor bera badute ere bi adar dira papera eta sarea, guztiz lotuta baina modu desberdinean lantzen direnak. Argia.eus egunkari digital bat izatera iritsi da, egunerokoari heltzen dio. 4.000tik gora pertsonak jasotzen dute, iluntzero buletin formatuan, eguneroko lan horren emaitza: hogeitabi albiste eta erreferentziatik gora, euskaraz. ARGIAren tresna digital estrategikoenetakoa da –astean behin 7.000 lagunetik gorak jasotzen duten Bizi Baratzea buletin elektronikoarekin batera–. Baina nola

antolatzen da lan hori etxe barruan? Atzora arte kazetari guztiak aritu dira webgunearen arduradun eta albistegin-tzan errotazio-sistema baten bitartez. Astean egun bat zuen bakoitzak egokituta. Orain ere denek hartzen dute parte lan horretan, baina webgunearen ardura lankide batzuek dute eta antolatzeke era beste bat da: erredakzioan dauden gaikako lantaldeek (politika, ingurumena, ekonomia, gai sozialak, hezkuntza, osasuna, kultura, euskara, feminismoa...) pisu handiagoa dute bai aktualitatearen galbahea egiterako orduan –urreikuspen ahalik eta handienarekin jokatz–, bai eduki horiek idazterakoan, baita jarraipenean ere.

Nola banatzen dira lan horiek? Goozero, bilera egiten dute aktualitatearen galbahean parte hartzen dutenek, gaikako lantaldeetako ordezkariak eta webgunea txukuntzeaz, antolatzeaz, edukiak egoki zabaltzeaz eta webguneko eduki guztiaren puzzlea egiteaz... arduratzen direnek. Horrela, denen ar-

tean gaurkoaren eta datozen egunen aurreikuspena egin eta lanak banatzen dira. Hala lortu dute webgunea izatea erredakzioak kontsentsuz adostutakoaren emaitza, egun horretan eta ondorengoetan webgunean kontaktatzen dena izatea erredakzioak uste duena kontatu behar zaiola egun edo aste horretan herriarrari, ARGIAren irizpide propioen arabera eztabaidatu eta adostuta.

Aktualitate zer kontsideratzen den subjektiboa da, nork zer kontatu nahi duen. ARGIAk bere agenda propioa du, beretzat garrantzitsua denari espazioa emanez, bere irizpide eta iturrien araberako filtroa pasata. Eta hori gaian espezializatutako kazetari batek kontatzea da helburua, ahalik eta informazio zorrotzera, sakonera eta kalitatezkoena eskaintzeko. Gaurkoari bihar eta etzi ere jarraipena eman eta modu pausatua eta lasaiago batean erreakzio, iritzi eta ahots desberdinak bildu. Hori guztia, gainera, milaka etxetara astero iristen den aldizkariarekin uztartuz.

Emaitzan nabaritzen da. Kalitatezko prentsa egin nahi du ARGIAk, eta horretarako, azken orduko albiste garrantzitsuenen berri emateari utzi gabe, nahiago du aktualitateari jarraipena egin azken orduaren diktaduran erori gabe, ertz desberdinak aztertuz, gaian adituen iritziak jasoz eta erreportaje sakonagoak onduz.

NOR-NORI-NORK

Badirudi interneten denok hasten garela zerotik. Denok gaudela pareko. Gure merituen arabera joango garela jarraitzaile gehiago edo gutxiago lortzen. Jokoak ez du arau hori bakarrik, ordea. Nor dago interneten atzean eta nork erabakitzen du zer nori erakutsi eta zein ordenetan? Algoritmo ditxosozkoak. Hor kokatzea ez da hain erraza, plataforma askotan ez baituzu zure edukien kontrolrik, eta nahiz eta eduki txukunak sortu, beste esku batek erabakitzen baitu zu lehen lerrera eraman edo hamargarrenera.

Sare sozialetan
erreparatzea nahikoa
da ikusteko handiek
duten boterea, nola
dauden antolatuta,
nola egiten dioten
oihartzuna elkarri

Hobeto ulertzeko, adibide bat: gogoratzen Facebookek hasieran nola funtzionatzen zuen? Bazenituen 50

lagun –zifra bat botatzearen– edo atsegindako orrialde. Horiak zerbait publikatzen zutenean agertzen zen zure horman modu kronologikoan eta beherantz eginda joaten zinen berrietik zaharrenearaino ikusten. Gaur egun plataforma bera da algoritmo bidez zuri zer ikustea "interesatzen" zaizun erabakitzen duena, eta badoa erakutsiz publizitate pixka bat, duela astebete ARGIAk publikatutako albiste bat eta lagun batek orain dela bost minutu zintzilikatutako argazkia. Beraz, lehen ARGIAren jarraitzaile guztiak jasotzen zuten egunean zehar argitaratuz zihoana eta oihartzuna lortzen zuen, erreakzio batzuk, edukiak zabaltzea. Aldiz, gaur egun ia 28.000 jarraitzailearekin albiste batzuk izugarri zabaldu arren, argitaratutako beste batzuek ez dute *atsegin dut* bat bera ere jasotzen. 28.000 horietatik inori ez zaio gustatu argitaratutakoa? Ala akaso askori ez zaio agertu ere egin?



PEERTUBE, MASTODON... BIDE BERRIEN BILA

Interneteko handiak jada ez dira he-
dabideak bakarrik, plataformak muns-
tro indartsuak dira eta informazioaren
mundu honek behartzen zaitu adi ibili
eta bide berriak topatzera. Telegram
eta Mastodonekin asko funtziona-
tzen du ARGIAk gaur egun, gutxi edo

gehiago, edukiaren kontrola duelako
plataforma horietan. Bideoak zintzi-
likatzeko Peertuberen kasuan bezala.
Teknologia burujabetzarako bidean,
nork bere zerbitzariak edukitzea ga-
rrantzitsua da, ez bakarrik erabaki
politiko moduan edo filosofia bezala,
praktikan ere, ziber-erasoen aurrean
ohartzen zara bestela salduta zaudela.

Dena den, ARGIA sarearen esperi-
mentazio fasean dago, beti egon izan
den moduan. Badaki plataforma asko
multinazionalenak direla, eta noizbait
kontu horiek itxiz gero hor dagoena
gal dezakeela, baina ez dio uko egin
nahi sareko ikusgarritasunari eta jen-
deari. Bere lekua topatzen ari da, eta
esparru horiek ere aprobetxatu nahi

AZAROAK 25

Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna



OÑATI
dabilen herria

Kontrolatzen bazaitu...



Elkarrizketak



Sare sozialak



Arropa



Dirua



Harremanak



Denbora

...INDARKERIA MATXISTA DA

argia.eus berriturik dator, urte berriarekin

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Hilabeteak daramatzagu ARGIA.eus berritzeko lanean, eta azken ukituak ematen ari gara, ahalik eta txukunen aurkezteko.

Erreportaje honek azaldu bezala, ARGIAren webguneak 25 urte dauzka, eta ikusten ez bada ere, barrualdeko administrazio gunea adabakiak bata bestearen gainean jarritzera irakita dago. Hasieran, digitalizatuta zeuden elkarriketak, gero astekariko erreportajeak, ondoren albisteak, hemeroteca, multimedia kanala, blogak, etiketak, online azoka... Atal bakoitza egin zen unearen erradiografiak dira ARGIAren webgunearen tripak –gaur gaurkoz 120.000 artikulua ditugu indexatu-

ta, eta etorkizun hurbileko proiektua da 1919 urtera arteko guztia berdin eskaintzea-, eta lanerako moldatzen baginen ere, honetan ere, garai berrietara egokitzeko beharra ikusten genuen.

Kalean mugikorrarekin albiste bat eguneratu edo argazki bat atera eta bertatik albiste bat sortzeko gai izatea. Hori izan zen berrikuntza honen abiapuntua duela urtebete inguru; beraz, erabiltzaileentzat ikusezina izango den arren, lanerako darabilgun tresnaren administrazio gunean aldaketa oso garrantzitsua da. Zenbat eta tresna modernoagoak, lanaren emaitza hobea izango delakoan gaude.

Hala ere, 25. urteurrena baliatu nahi izan dugu webgunearen alde publikoa ere eraberritzeko. Nagusiki, informazioa hobeto antolatu, hierarkizatu eta aurkeztea izango da helburua. Argia.eus-eko bi zutabe bertikal nagusien eskema alde batera utzi eta, hemendik aurrera, mundu mailan nagusitu den joerarekin bat egingo dugu: bloke horizontalagoen bidez sailkatuko dugu informazioa. Besteren artean, gailu mugikorretarako askoz egokiagoa da.

Multimedia ere bultzada jasoko du, eta podcastez gain, ikus-entzuzkoen produkzioak ere leku nabarmena izango du, esparru horretan informazioa eskaintzen eta eragiten jarraitzeko asmoa baitugu.

ditu bere edukiak ezagutarazteko, eroso dagoen lekuan geratu gabe bide berriak irekitzeko.

“Modan” dagoelako zerbaitetan sartu beharrean, galderak izan behar du: balio digu gure edukiak eta baloreak zabaltzeko? Gure kazetaritza egiteko? Hala bada erabiliko dugu, baina ARGIAren esentzia mantenduz. Lengoia kontua da, ez sare sozial bat ondo edo

gaizki dagoen. Lortu behar duzu zuk esan nahi duzuna eta zure edukiak hor txertatzea. *Berezkoa Ta Naturala* Bertso Txapelketa Nagusiaren inguruko saioan Tik Tok-era egin dute jauzi, adibidez. Ez ditugu kazetariak dantzan ikusiko (espero), sortzen dituzten edukiak hedatzeko kanal bezala erabiliko dute, kazetaritza zabaltzeko.

Formatuak egokitzen jakitea da ga-

koa. Ez du esan nahi sortzen den guztia formatu berdinean jarri behar denik sare sozial guztietan. Bakoitzak ditu bere arauak. Tik Tok edo Instagram, adibidez, oso gauza motzak igotzeko lekuak dira, baina aprobeztatu daiteke prestatutako eduki luze baten zati txiki batzuk jarri eta ARGIAren lana hor ere erakusteko. Garrantzitsuena, azkenean mamian dagoena helaraztea baita.

A 3 D
EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren
3a, egunero!

 ARRIGORRIAGA
Bizitzeko hobetu

Diseinua ere finduko dugu, horrenbeste artikuluren artean nabigazioa atsegina izan dadin. Eta ikusita mugikorren bidez sartzen direla milaka lagun egunero ARGIA-ra, gure webgunearen mugikorren bertsioa ere berrituko dugu. Aurkezpena urtarrilaren 10ean izango da, eta behin hau amaituta, baditugu datorren urtean egin nahi ditugun proiektu indartsu gehiago.

Azken hilabeteetan Argia.eus-era interneteko erabiltzaileek egiten duten bisita kopurua bikoiztu egin da, eta uste dugu azala berritzeak lagunduko duela gure webgunera etortzen direnei ongietorri elegante bat ematen.



EDUKIAK LIBRE

Hala izan da hasieratik. Sortu zen zalan-tzetako bat izan zen 1997 hartan: sareko eduki guztiak libre jarri behar ote ziren ala ez. Taldeak aho-batez erabaki zuen baietz, gurea kultura txikia dela, euskaraz ari garela lanean eta helburua izan behar duela gure lanak ahalik eta jende gehienengana iristea. Hogeita bost urteren ondoren helburuak bera

izaten jarraitzen du eta etxe barruan erabakia irmoa da. Gaur egun, hedabide ugari giltzarrapoa jartzearen edo edukia mugatzearen aldeko hautua egin duten arren, asko dira ARGIAk defendatzen duen eduki libreen kultura praktikara eraman eta horiek partekatuz eragina bidekartzen duten medioak.

ARGIAren webgunearan erreportaje, elkarrizketa eta eduki guztiak doan

aurki ditzakezu irakurtzeko eta osorik zabaltzeko, Creative Commons-BY-SA lizentzia librea. Multimedia kanalean ere euskarazko ehunka dokumental, solasaldi, film-labur eta ekitaldi daude ikusgai. Eta hau guztia posible bada, ARGIA ekonomikoki babesten duten milaka herritarrei esker da. Segi dezagun, puntuz puntu, nahi dugun sare hori indartzen. ●


 Usurbilgo Udala
Usurbilgo Udala
 Joxe Martin Sagardia plaza
 943 37 19 51 erregistroa@usurbil.eus
www.usurbil.eus

KIKE AMONARRIZ

Euskaltzaleen Topagunearen lehendakaria

“Ahalduntzea ez dadila Euskaraldiarekin amaitu”

Hitzaldiak, prentsurrekoak, elkarrizketak eta bilerak kontuan hartuta, egunean hiruzpalau hitzorduri erantzuten die egunotan Euskal Herriaren geografia luze-zabalean Kike Amonarrizek (Tolosa, 1961). Umoregilearen aldaratearekin, komunikatzailearen argitasunaz, soziolinguistaren zorroztasunez eta Euskaltzaleen Topagunearen arduratik mintzatu zaigu Euskaraldiari, euskarari eta euskaltzaleon erronkei buruz.

 ASIER BASURTO  DANI BLANCO

Euskaraldiaren hirugarren edizioaren zurrumbilao heldu da. Hilabete askotako prestaketa-lanak ariketa sozial horretan gauzatzeko unea. Nola bizi dituzu egun hauek?

Intentsitate eta jakinmin handiz. Iruditzen zait edizio honek pista asko eman go dizkigula. Lehenengo edizioa sorpresarena izan zen: jendeak ez zekien oso ondo zer zen, baina olatu bat zetorrela ikusi zuen eta olatura igo zen. Bigarrena pandemiarena izan zen: ariguneak planteatu ziren, baina asko ezin izan ziren aurrera eraman, establezimendu asko itxita, jendea etxean edo mugatuta...

Hirugarrenean, jendeak badaki zer den Euskaraldia eta sumatu du ez dela euskararen aldeko posizionamendu bat, praktika bat eta konpromisoa eskatzen duen zerbait baizik. Aurten Korrikak eta Euskaraldiak bat egin dute berean, pandemia osteko urtean. Euskaraldirako Batzordeak uda ondoren aktibatu

dira. Ikusi beharko da zein lekutan aktibatu diren ongi, zein lekutan garatu den egoki, zeinetan ahulago... Mapa esanguratsua izango da. Eta ikusiko dugu arigune mailan zein garapen duen eta zein oinarri uzten duen aurrera begira. Kopuru konkretuetatik haratago, irakurketa kualitatiboa gailenduko da. Masiboa izaten jarraituko du, baina ñabardurei begiratu eta ondorioak atera beharko ditugu.

Uste duzu ariguneen dinamika palanka izan daitekeela eremu sozioekonomikoan eragiteko? Entitate batzuentzat hasiera bat izan daiteke?

Arigune asko kokatzen dira lehendik zetozen euskalduntze-prozesuen barruan. Euskaraldiak horiek indartzen eta areagotzen lagunduko du. Baina beste leku askotan euskararen erabilera-dinamikak abiatu egingo ditu. Hainbat en-

presatan eta kirol-taldetan, lehen aldiz planteatu da: sortu al dezakegu arigune bat? Galdera hori planteatu izana aurre-rapauso handia izan da. Posible al dugu? Eta ez bazaigu posible, zein urrats eman behar ditugu hurrengo Euskaraldian baldintzak betetzeko? Abiapuntuko hausnarketa hori gabe, nekez etorriko dira urrats gehiago. Hainbat dinamika martxan jarriko dira eta ikustean posible dela gauzatea eta eguneroko jardunarekin bateragarriak direla, atea zabaltzen zaie urrats berriei.

Euskaraldia helduleku bat da hizkuntzaren biziberritzean urratsak eman nahi dituztenentzat, euskararen alde zerbait egin nahi dutenek bere enpresa eta elkarteetan gaia planteatzeko, eta ispilu bat ere bada: non gaude, zertan ari gara, zer egin genezake?

Aukera bat da, eta aukera guztiak bezala aprobeztatu dezakezu modu desberdinetan. Iruditzen zait orain arte ez genuela horrelako tresnarik aukera hori hain masiboki planteatzeko Euskal Herriko eremu guztietan eta sektore guztietan aldi berean. Horregatik, sinesten dut Euskaraldia indar handiko eta posibilitate handiko artefaktua dela.

Aurreko edizioetan belarriprest rolari eman diozue garrantzi berezia. Hori hedatzeko borondatea adierazi duzue. Zein funtzio betetzen du?

Belarriprest figurak ideia bat gizarteratzen du: euskararen aldeko jarrera praktikoak mailakatuak izan daitezke eta norberak, dagoen posizio soziolinguistikotik, bere inguruan erabilera handitu dadin aukerak zabaldu ditzake.



Gainera, figura oso zabala da. Sar daitezke euskaraz oso ongi dakitenak, baina inguruko baldintzengatik edo bere egoeragatik, denok ez dugulako urratsak egiteko prestutasun bera, beti erabiltzeko zailtasuna dutenak. Eta bestalde, aukera eman die euskal mundutik urrun zeuden euskaldunei, euskara-ikasleei eta euskaraz ulertzeko gai zirenei euskal mundura hurbiltzeko.

Kontuan hartu behar dugu gero eta gehiago direla euskaraz hitz egiteko gai direnak eta ulertzeko gai direnak. Momentu honetan Euskal Herrian 30 urtez azpiko biztanleriaren zatirik handiena familia erdaldunetatik dator, ingurune

erdaldunetan bizi da, erdaraz hobeto moldatzen da, gizarte-sare erdaldunetan txertatuta dago... Errealitate soziolinguistiko horri, ezagutza-profil dibertsifikatu horri, jarrera-maila dibertsifikatu eta mailakatu bat eskaintzen diogu. Esaten diegu: zauden posizioan zaudela, bizi zaren inguruan bizi zarela, aukera duzu euskararen erabilerari laguntzeko.

Gainera euskararen erabilerara hurbiltzeko modu abegikorra da eskaintzen dena. Horrez gain, lehen hitza euskaraz egiteari atea zabaltzen dio, elkarrizketa elebidunei atea zabaltzen die, ariguneei atea zabaltzen die... Potentzial handiko bidea da.

Ahalduntze-eskolak sustatu dituzue zenbait eskualdetan, proba pilotu gisa, ahobiziei zuzenduta.

Zertan datza ekimenak?

Ariketaren kalitatean sakondu nahi izan dugu hainbat ekimenekin, jendeak ikus dezan Euskaraldia ez dela txapa bat jartzea soilik. Ahalduntze-eskolak, bideo eta material pedagogikoak, rolak hobeto aukeratzeko infografiak, Euskadi Irratiarekin landutako Zapla podcasta... Ariketan parte hartzen dutenak ahalduntzeko baliabideak dira.

Ahalduntze eskolen kasuan, zehazki, ahobizi izatea euskaraz jakitea baino dezente gehiago dela erakutsi nahi izan da eta rol hori egoki eta eroso betetzeko baliabideak eskaini. Atzean dagoen helburua da ahalduntzea ez dadila amaitu Euskaraldiarekin. Energia horri jarraitzea ematea garrantzitsua da. Euskara elkarterik ez dagoen tokietan sortu diren Euskaraldiko batzordeak iraunarazi nahi genituzke, ariguneei iraunarazi, ohiturak aldatu dituzten norbanakoen ohitura berriak finkatu... Hau ez da kanpaina bat, emaitzak eragiten dituen ariketa da.

Euskaraldia sortu zenean berrikuntzetako bat izan zen erakunde publikoek eta gizarte eragileek elkarlanean antolatzea. Urte batzuetako ibilbidearen ostean, zein balantze egin daiteke elkarlan horretaz?

Euskaraldiak gobernantza-eredu berri bat sortu du eta hori ekarpen garrantzitsua izan da, ez bakarrik euskararen alorrerako. Lortu dugu Euskal Herri osoko erakunde publikoak Euskal Herri osoko euskalgintzarekin elkarlanean aritzea. Erakundeak elkarren artean, euskalgintza elkarren artean eta erakundeak euskalgintzarekin. Hori orain dela urte batzuk pentsaezina zen; ez pentsaezina, ezinezkoa zen. Ezinbestekoa da erakundeek dagokien eginkizuna betetzea; ezinbestekoa da gizartearen parte hartzea; eta, gurea bezalako hizkuntza gutxitu baten kasuan, ezinbestekoa da indar metaketa.

Honek ate bat zabaldu du, bere gorabehera guztiakin. Ez da erraza, ezta sinplea ere, horrelako proposamena adostea eta aurrera ateratzea. Eztabaida asko daude, ikuspegi desberdinak daude, baina lortu dugu alde guztiek konpromisoa izatea eta momentu honetan badago konfiantza desadostasunak eta arazoak kudeatzeko. Horrek ez du

PANTAILAK EUSKARAZ

Sinadura bilketen inguruan antolatu dira herritarrek euskarak ikus-entzunezkoetan duen presentzia urrian arreta jarri. Gero etorri dira lege berriak, plataformen erabakiak, keinuak... Ikusten al duzu biderik eragile handi hauetan eragin eta gutxieneko eskaintza bermatzeko?

Denok ikusten dugu ikus-entzunezkoen garrantzia funtsezkoa dela gaur egungo gizartean. Euskaldunontzat erronka zaila da, baita hizkuntza gutxituentzat, baina estatu-hizkuntza askotan ere kezka dagoela dakigu (Islandia, Suedia...). Honi erantzuteak elkarlan egituratua eskatzen du. Espainiako ikus-entzunezko legeari begira estatuko hizkuntza gutxituetako eragileak batu ginen, baina Europa mailan eragitera jauzi eman beharko dugu.

Lehenik, lege mailan eman daitezkeen aurrebide batzuk Europako markoan jokatu dira. Bigarrenik, enpresa eta multinazionalen mailan gurekiko interesa mugatua izango da eta zirrikituak bilatu beharko dira. Eta hirugarrena da guk sortu dezakeguna: ikus-entzunezko politika, EITBren papera eta ikus-entzunezko industriarena. Euskarazko hedabideek ere izango dute zeresana. Gaur egun oso eragin urria dute. Herritar aktiboak beharko dira hori aldatzeko ere. Ahalik eta modu koordinatuenan sakatu beharko dira tekla horiek guztiak.

esan nahi desadostasunak ez daudenik erakundeekin, euskalgintza barruan... Baina horiek kudeatzeko prozedurak jarri dira.

Segur aski, esperientzia bide-erakuslea da euskalgintzaren beste ekimen batzuentzat eta baita herrigintzako beste alor batzuetarako ere. Euskaraldiaren balorazioan herritarrek ere ikusi dute elkar-hartze bat eta horrek berak sortu du ilusioa.

Euskaltzaleen Topaguneak 25 urte bete berri ditu. Zein esango zenuke direla momentu honetan lehentasunezko erronkak Topagunearentzat eta euskara elkarteentz mugimenduarentzat?

Batetik, hurrengo hamarkadarako erronkei erantzungo dien estrategia definitu behar dugu. Aurreko kongresua duela hamabi urte izan zen eta gaur garenaren oinarriak ezarri ziren *Oinarriak eta Eraldabideak* txostenean. Orain, horiek berritzeko, pentsatu

dugu eragin nahi dugun sektoreen ahotsa entzun eta barneratu behar dugula kongresu-prozesuan. Sektore horien ordezkariak prozesuan txertatuko dira, *aldaketaren teoria* izena duen metodologia baliatuz. Euskararen egoeran jauzi bat eman behar dela uste dugu. Sektore horiekin aztertu nahi dugu jauzia emateko gertatu behar litzatekeena. Eta, gero, hor Topaguneak zein paper jokatu behar duen.

Bigarrenik, euskara elkarteentz irismena handitzea. Dinamika sozial indartsua, aktibazio soziala, ezinbestekoa da egoerak aurrera egingo badu. Herritar auto-antolatuez ari gara. Antolaketa ereduak berritzea aztergai dugu. Sarea zabaltzeari begira, iaz Topagunea Ipar Euskal Herrian hedatu, eratu eta legeztatu zen. Bizkaian gure egoera ahulago ikusten dugu eta indartzea lehentasunetan dago. Euskaltzale aktiboaren sare bat Euskal Herri osoan jostea ere bada beste puntu bat.

Horrez gain, ekimen garrantzitsuak ditugu aisialdian, aniztasunaren aldoan, mintzalagunean, Euskaraldiaren eraginak luzatu eta iraunkortzeko jarduerak...

“Ahobizi izatea euskaraz jakitea baino dezente gehiago da”



Aurten ezagutu ditugu 2021eko hizkuntzen erabileraren kale neurketaren emaitzak. Euskal Herri mailan kale erabilera aurreko neurketen mailan mantentzen da; datua egonkor dago. Duela urte





batzuk euskara bidegurutzean zegoela adierazi zenuen, besteak beste, zure liburuan. Hor al gaude oraindik?

1989tik hona, kaleko erabilera %10 eta %14 artean dago; pittin bat gora edo behera, baina beti tarte horretan. Datu asko daude eta esparrurka argiak eta ilunak ikusten ditugu, baina orokorrean, *impasse* batean aurkitzen gara. Beraz, bai, bidegurutzean gaude.

Honi buelta eman nahi badiogu eta erabileran jauzi bat eman, beste dimentsio, bolumen eta dentsitate bateko ekimen kolektiboa behar da. Hizkuntza politiketan, aktibazio sozialean eta eragileen inplikazioan daukagu koska. Askotan euskara da erakunde sektorialen kontua, sail

baten kontua... Jauziak esan nahi du denak beharko ditugula. Genero politikak eta klima aldaketaren aurkako politikak bezala, euskararen aldeko politikak erakunde eta sektore guztiak busti beharko ditu.

32 urtean erabilera zergatik mantendu den tarte horretan ulertu behar dugu, modu sistemikoan. Helburua sistema osoari eragitea denez, diagnosi komun batetik abiatu behar gara. Eta hortik aurrera aldaketa sistemikoa pentsatzeko unea heldu da. Hizkuntza politikaren arduradunen erakundeak, Kontseiluen *Batuz Aldatu* dinamikari atxikitutako eragileak, Euskaltzaindia eta Topagunean nagusitzen ari da ikuspegi partekatuen beharraren ideia. ●

EITB

ETBn jardun izan duzu urteetan lanean, Eusko Legebiltzarreko ponentzian proposamena ere egin zenuen. Zer aldatu beharko litzateke EITBk, bere sorreran ezarri bezala, euskararen normalizazioan ekarpen egokia egin dezan?

Programazioan urrats positibo batzuk ikusi ditugu: lehiaketak, reality batzuk... Baina funtsean eztabaida dago EITBren antolaketaren eta ereduaren inguruan. Legebiltzarreko ponentziak aurrera egin ez zuen arren, ezinbestekoa da gaur egungo eta etorkizuneko egoera soziolinguistikoari erantzungo dion EITBren birplanteamendua.

Baina badago beste lan bat. Herri-tarrak euskarazko ikus-entzunezko kontsumora bultzatu behar dira. Kezkatuta nago eskaintza urriarekin, baina baita dagoenaren kontsumo eskasarekin. Kanpoko enpresek eskaintzea lortzen badugu eta ikusten badute ez dela kontsumitzen, jai dugu. Hor ere badago hizkuntza-ohituren aldaketarako premia.

Horiez gain, hor ditugu youtuberrak, streamerrak... Hor ere estrategia instituzional eta sozialak martxan jarri behar genituzke, ditugun hutsuneak betetzeko. Ez da erraza asmatzea, baina ezinbestekoa zaigu eskaintza hori ere zabaltzea. Eta euskarazko hedabideen sarea indartu eta herritarrengan txertatzea, eta hori, bultzada eta adostasun soziopolitiko zabal baten bidez lor daiteke soilik.



Elorriko udala

Euskara

gehiago, gehiagogaz, gehiagotan

Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) | 946 58 27 12 | euskara@elorrio.eus | www.elorrio.eus

ROJAVAN DAGOEN EUSKAL HERRITARRA

“Egoera oso kritikoa da Rojavako iraultzarentzat eta Kurdistango Askapen Mugimenduarentzat”

Azaroaren 19ko gauaz geroztik, Turkiak areagotu egin du Kurdistango herriaren aurkako eraso, eta Rojava eta Siriako ipar-ekialdea bonbardatzeari ekin dio. Recep Tayyip Erdoganen gobernuak azaroaren 13an Istanbulen jazotako eztabairaren erantzule egin du Kurdistango Askapen Mugimendua, eta argudio horrekin ekin dio operazio militar berriari. KNK Kurdistango Kongresu Nazionalak salatu du "bandera faltsuko" atentatua izan zela Istanbulera, eta Turkiak kurduak erasotzeko baliatu duela. Istanbulera eztabairak –eta ondoren etorritakoek– 2004ko martxoaren 11n Madrilera gertatutakoa dakarkite gogora Rojavan dagoen euskal herritarrei. Berarekin mintzatu gara, Kurdistango egoeraren berri lehen eskutik ezagutzeko.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Labur-labur bada ere, zein da Kurdistanen bizi duzen egoera?

Turkiako Estatuaren krisi politiko, sozial eta ekonomikoan guztiz murgilduta dago. Gobernatzen ari den eskuin muturreko AKP-MHP alderdiaren erregimena bere azkenengo arnasa hartzen ari da, bere existentzia gehiago zilegitu ezinik. Alderdi horrentzat eta honen lider Erdoganentzat, bizirauteko aukera bakarra Kurdistango Askapen Mugimendua suntsitzea da; horregatik, eta Turkiako hauteskundeak hurbil daudelako, apirilean Turkiako estatu faxistak gerrillaren aurka eskalada handiko operazioa hasi zuen mendietan (Claw-Lock izeneko operazioa). Gerrilla suntsitzea Kurdistaneko Askapen Mugimendua bihotza suntsitzea baita.

Apiriletik, beraz, mendietako gerrillek egunero NATOko bigarren armada handienaren erasoak jasan behar izan dituzte. Baina nahiz eta Turkiak baliabide tekniko eta teknologiko guztiak eduki eskura, ezin izan du gerrillaren erresistentzia apurtu. Izan ere, turkiar estatuak, espero zituen emaitzak ez lortzeaz

harago, erabateko galera jasan du. Soldaduen galera hain handia izan da Turkiarentzat, haietako askoren gorpuak erre egin behar izan dituztela, herriari galeraren dimentsioa ezkutatzeko.

Bere helburuak lortu ezinik, Turkiak bide ezberdinak hartu ditu: alde batetik, azken bi hilabeteetan arma kimiko bidezko erasoak areagotu ditu mendietan; eta beste alde batetik, Rojavaren eta bertako administrazio autonomoaren aurkako erasoaren eskalada handitu du. Erdoganek, inbasioarekin mehatxuka ibili ostean, uztailetik hona drone eta bonbardaketan bitartez bai zibilak zein komandanteak erail ditu, Estatu Islamiakoaren (EI) aurkako gerran garrantzitsuak izan diren komandanteak tartean. Azken egunotan egon diren eraso bortitzak marko honetan ulertu behar ditugu. Turkiako estatu faxista etenik gabe Rojava eta Siriako ipar-ekialdea bonbardatzen aritu da, zibilak erailtzen, ospitaleak erasotzen, petrolio-ekoizpeneko instalazioak suntsitzen eta koalizio antiterroristaren zentroa txikitzen, besteak beste. Erdoganek lurrazaleko inba-

sioarekin mehatxu egin du jada. Egoera oso kritikoa da Rojavako iraultzarentzat eta Kurdistango Askapen Mugimendua- rentzat, horregatik da oso garrantzitsua hurrengo egunetan hemengo erresistentzia babestea eta elkartasuna adieraztea. Aukerak ere sortzen ari dira erresistentzia handitzeko eta iraultza hedatzeko.

Azkenaldian arma kimikoen erabilera salatzen ere aritu da Kurdistango Askapen Mugimendua. *Morning Star* hedabide britainiarreko Steve Sweeney kazetariak dokumentatutakoaz txostena osatu du, iradokiz arma kimikoen erabilera egiten aritu daitekeela Erdoganaren gobernuak, Kurdistango herriak salatu bezala. Froga horiek esku artean izanik ere NBERen edota OPCW Arma Kimikoak Debekatzeko Erakundea bezalako organismoen erantzuna isiltasuna izan da, nahiz eta arma kimikoen erabilera debekatu zenez geroztik OPCWri dagokion horien erabilera egiten ez dela ziurtatzea.

Zein irakurketa egiten da isiltasun horretaz?

Ikerketa ofizial bat aurrera eramateko haina ebidentzia daude. Sweeneyren txostena ez ezik, beste hainbat informe eta elkarrizketak iradokitzen dute turkiar estatua debekatuta dauden arma kimikoak erabiltzen ari dela. OPCW arma kimikoen erabilpena debekatzeko eta haien desagertzea abiarazteko sortu zen. 193 estatu-kidek, tartean Turkiak, itun bat sinatu zuten, eta konpromisoa hartu zuten arma kimikoak ez garatzeko, ez ekoizteko eta ez erabiltzeko. Baina argi dago itun hori ez dela betetzen, ez behintzat indar inperialista edo indar inperialisten aliatuei dagokienez. Beraz, laburki, zergatik OPCW ez da hasi ikeretzen? Bada, Turkiako Estatua nazioarteko komunitateko kide errespetatua eta NATOk kidea delako, eta ez dagoelako inolako interesik horiek gauzatuak gerra krimenak ofizial bilakatzeko. Izan ere, arma kimikoen eta debekatutako armen erabileraren jakitun dira AEBak eta mendebaldeko indarrak. Horretaz aparte, bai Bakur-en [Iparraldeko Kur-

distan, Turkiako Estatuaren mugetan] zein Bashur-en [Hegoaldeko Kurdistan, Irakeko Estatuaren mugen barruan] erasoak egiteko AEBen baimena behar dute, zerua horien kontrolpean baitago.

“Gerra krimenen aurrean, isiltasunak hil egiten du”. Ideia horretatik tiraka abiatu zenuten #YourSilenceKills kanpaina orain aste batzuk. Ahotsa ez altxatzearen erantzukizuna nazioarteko erakundeei bakarrik ez, hedabideei ere leporatu diezue.

Komunikabideen isiltasunak OPCWren isiltasunaren logika berdinari erantzuten dio. Hamarkadak dira mendebaldeko indarrek Ekialde Hurbilean gerra bortitza abiatu zituztela, baina komunikabideetan zarata handirik ez du sortu horrek, nahiz eta herrialde asko masakratuak izan diren “demokraziaren” izenean. Badakigu komunikabide handien jabeek zer nolako interesak defendatzen dituzten; denboran larregi atzera egin beharrik barik, Ukraina eta Errusiaren arteko gerran argi ikusi da mendebaldeko komunika-

bide gehienek papera: NATOn politika interbentzionistak eta espantsionistak zuritu eta zilegitu. Badirudi gerra horren bidez NATOk zilegitasuna lortu duela bere politika espantsionistarekin eta genozidarekin jarraitzeko.

Jugoslaviarekin hasi zenak aurrera jarraituko du, eta komunikabideen babesa-rekin Europan gerra gehiago zabalduko ditu NATOk. Mendebaldeko herrialdeek Ekialde Hurbileko herrialdeetan darabiltzaten politika genozidak erakutsiko baliuzte komunikabideek, Mendebaldearen irudi demokratikoa desitxuratuko litzateke, eta denak konturatuko lirateke ez dagoela giza eskubideak errespetatzen dituen estatu zibilizaturik. Beraz, hedabide gehienak maneiatzen dituzten oligopolioek Europan Batasunaren demokrazia itxura mantendu behar dute. Horretaz aparte, Kurdistaneko Askapen Mugimendua mehatxua da oligopolio eta botereentzako, benetako alternatiba demokratiko iraultzailea errepresentatzen duelako. Beraz, mugimenduaren aurkako erasoak dagokienez isiltasuna mantendu behar dute.



INTERNATIONAL COMMUNE OF ROMANIA

Isiltasun horrekin hausteko xedea du, beraz, aipatutako kanpainak?

Bide guztietatik lan egin behar dugu isiltasuna apurtzeko. Nahiz eta zaila izan gure salaketa lanarekin jarraitu behar dugu. Gure helburua isiltasuna apurtzea da. Herri ezberdinetan mobilizazioak bultzatu eta estatuei presioa egin nahi diegu, ikerketa ofizialak abiatu ditzaten.

Orain gutxi, Turkiak 17 gerrillari hil ondotik, gerrillara batutako gazte talde batek hala zioen publiko egindako oharrean: “Berriki, ikusi dugu turkiar estatu inbaditzaileak ISIS mendekatu nahi duela, beraz garaitu zutenei eraso eginez; eta hori NATOren laguntzaz egiten da. Mendebaldeko potentziek ISISen aurkako koalizioa osatu bazuten ere, mertzenarioek osatutako turkiar estatua ere babesten dute. Hori sekulako hipokresia da”. Mendebaldeko isiltasuna Turkiari ematen dion babesaren adierazle bezala irakur daiteke?

Bai, guztiz. Kurdistango herriak bizi duen gatazka marko orokorrage batean ere kokatu behar dugu. Kapitalismoa krisi global batean murgilduta dago, irtenbiderik ikusi ezinik eta sistema berregituratu nahian. Indar inperialista guztiak krisi globala gainditzeko bideak bilatzen ari dira, baina beren hegemonia mantentzeko edota indartzeko interesarekin, hori bai. Horrek kontraesan handien aurrean jartzen ditu. Adibidez, Alemaniak indar hegemoniko handienetako bat izan nahi du datorren ziklo politiko berrian, baina, alde batetik, Errusiaren baliabideak behar ditu -horiek gabe Alemaniako krisia areagotu egin da-; eta bestetik, oraindik ere AEBen babesa behar du. NATOren eta Errusiaren kasuan, krisiari irtenbidea emateko ezintasunaren aurrean, biek behar zuten Ukrainako gerra. Argi dago NATOk gerrak sortu behar dituela, batasunaren kontakizun faltua eskaintzeko eta barne kontraesanak ezkutatzeko. Orain, aitzakia du bere hedapen-proiektua justifikatzeko eta sistemaren berregituratze fase berri honetan indar hegemoniko bihurtzeko.

Ekialde Hurbilean hamarkadak dira gerra bortitzak abiatu zirenetik; hegemonia lortzeko Ekialde Hurbilaren kontrola ezinbestekoa da eta gerra bortitz horiek hala adierazten dute (Kurdistan,

Siria, Irak, Afganistan, Yemen, Palestina, Libano...). Noski Ekialde Hurbilaren kontrola lortzeko borroka horretan Kurdistango Askapen Mugimendua oztopo bat da, sistema dominatzaile eta zapaltzailearekiko alternatiba demokratiko bat aurkezten eta praktikan jartzen ari baita.

AEBen, NATOren eta mendebaldeko estatuen babesik gabe Turkiak ezingo luke gauzatzen ari denaren dimentsioko gerrarik egin. Turkia “ekialdeko proiektu handia” deiturikoa zabaltzeko eta Ekialde Hurbileko baliabideak esplotatzeko giltzetako bat da mendebaldeko herrialdeentzat. Baina orain arte ezin izan dute proiektua zabaldu eta Ekialde Hurbila liberalizatu mendebaldeko programa politikoa eta ekonomikoa ezarri. Hala gertatu da beste herrialde askotan, Latinoamerikako herrialdeetan. Oso labur azalduta, uste dugu horregatik guztiagatik dagoela isilik Mendebalde Turkiako gerra krimenen aurrean.

PKK jo-puntu hartuta eta “helburu terroristen aurka” ari dela argudiatuz egiten dio eraso Turkiak Kurdistani. Alabaina, zer da zehazki suntsitu nahi dena?

Turkiaren helburua, PKK suntsitzea ez ezik, herri kurduaren nortasuna eta existentzia ukatzea eta Kurdistango Askapen Mugimenduaren iraultzak eraiki duen guztia suntsitzea ere bada. Turkiako Estatuaren aurrean duen beldur da, autodefentsarako eta autodeterminaziorako eskubidea erabiltzen duen herri baten beldur; dominazioaren eta esplotazioaren aurka dagoen herriaren beldur, eta indar zapaltzaileen aurkako borrokan bere herri-egiturak eta egitura demokratikoak eratzen ari den herri baten beldur.

PKK askatasunean, maitasunean eta lankidetzan oinarritutako bizitza berri baten abangoardia eta espiritua da; patriarkatuaren, kolonialismoaren eta liberalismoaren aurkako borroka eragin-korrenen irudia. Modernitate kapitalista eta egungo menderatze-sistema gainditzeko zailtasun handiak ekar ditzakeen arren, kurduen askapen mugimendua mundu osorako itxaropena da, benetako alternatiba demokratiko bat praktikan jartzen ari delako. Turkiako Estatuak eta nazioarteko indarrek beldurrik ez balute, ez lukete PKK-ko lider Abdullah Öcalan uharte-espetxean isolamendu egoerarik gogorrenean giltzapetuko.

Öcalanek jasaten dituen baldintzak Turkiako Estatuak herri kurduari bere osotasunean ezarri nahi dizkion isolamendu eta suntsipen baldintzak dira.

PKK EBko talde “terroristen” zerrendan egoteak errazten dio argudio hori erabiltzea Turkiari. Oker ez banabil, zentzu horretan ere badago martxan PKK zerrenda horretatik kanporatzeko kanpaina bat. Aukerak ikusten dituzue hori lortzeko?

Ez dugu horretarako aukerarik ikusten, ez behintzat ez bada aldaketa nagusi edo garrantzitsuren bat gertatzen Mendebaldeko politikan eta egoeran. Hala ere, egin beharreko lana da, bide guztietatik borrokatu behar da. Zilegitasun kontua ere bada: terrorista gisa sailkatuta egoteak borrokari zilegitasuna kentzen dio. Baina azken finean, autodeterminaziorako eta autodefentsarako borroka zilegia da. Kurdistanen gerra dago, eta PKK-k Kurdistango herritarren eskubideak defendatzen ditu, ez da terrorista. Estatu inperialistak, herri kurduaren eskubideak ukatzen dituztenak, horiek dira terroristak.

Duela egun gutxi Istanbulen gertatutako eztanda ere PKKri leporatu zion Süleyman Soylu Turkiako Barne ministroak, kurduak agindutako atentatua izan zela adieraziz publikoki. Esanguratsua da: salatzen ari zireten isiltasunaren aurrean, adierazpen horiei oihartzuna egin diete nazioarteko hedabideek. Egin nahi duzue horretaz irakurketarik?


Istanbulen gertatutakoak 2004ko martxoaren 11n Madrilen gertatutako gogorazten du. Garai hartan Espainian bezala, hauteskundeak gertu dira Turkian, eta Istanbulgo eztanda erabiltzen ari dira propaganda egiteko eta kurduen aurkako politika genozidak zilegitzeko. PKKri eraso leporatzeko Turkiako Estatuak sortutako narratiba erabat surrealista izan da. Turkiako Estatuak atentatua erabili du bere politika koloniala, faxista eta genozida zilegitzeko. Atentaturen aitzakiapean, azken egunetan bortizki eta etenik gabe eraso dituzte Rojavako eta Siriako ipar-ekialdeko eremu liberatuak, eta orain lurrazaleko erasoarekin mehatxu egiten ari dira. Lau egun hauetan 26 hildako baino gehiago egon dira. Nortzuk dira terroristak? ●



ABENDUAK 3 *EUSKARAREN* *NAZIOARTEKO* EGUNA

Bilbao

Eskuak, pentsamendu abstraktuaren lehen emaitza



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Europako hego-mendebaldea, duela 41.000 urte. Kobazuloetako hormetan, gizakiak eskuak margotzen hasi ziren. Goi Paleolitoan hasi eta Neolitora arte jarraituko zuten adierazpen artistiko horrekin, eta ez soilik eremu horretan; Indonesian eta Patagonian ere, esaterako, Paleolitoko eskuak topatu dituzte. Beraz, milaka urtetan eta mundu osoan, elkarrekin inongo harremanik ez zeukaten komunitateek artelan oso antzekoak egin zituzten.

Gainera, denetan margotu zituzten esku positiboak eta negatiboak. Positiboak egiteko, eskuak pigmentuz estali eta horman jartzen zituzten; gero, inperfekzioak eta hutsuneak betetzeko, azken ukituak ematen zizkieten. Esku negatiboetarako, pigmentuak ahoan jaso, eskua horman jarri eta putz egiten zuten, zuzenean edo kanaberazko tutuak erabiliz. Hala, eskuaren silueta horman markatuta geratzen zen.

Adituek garbi dute zer teknika erabiltzen zuten, eta eskuak pentsamendu abstraktuaren sorrerarekin lotuta daudela, esanahi sinbolikoa zutela. Baina zer esan nahi zuten? Zergatik margotzen zituzten? Galdera hauek hipotesi asko piztu, baina erantzun gutxi lortu dute.

Pennsylvaniako unibertsitateko Dean Snow arkeologoak uste du esku horiek emakumezkoenak zirela, eta gizonak ehizara joaten zirenean, emakumeek erritual modura margotzen zituztela, ehiza oparora izan zedin. Baina teoria honek hutsune nabarmena dauka: berriki jakin dugu emakumeak ere ehizan aritzen zirela. Beste aditu batzuek diote, eskuak benetan emakumeenak badira –hori ere ez baitago frogatzerik–, agian komunitatearen formakuntza haien eskura zegoelako margotzen zituztela, alegia, funtzio didaktikoa zutela.

Eskuen beste ezaugarri bat esanguratsua da: esku askori zenbait hatz edo falange falta zaizkie. 1922an G. H. Luquet arkeologoak esan zuen ez zituztela benetako mutilazioak irudikatzen, horrelako mutilazioak dituzten eskeletorik



Zati batek osotasuna adierazten du eta, beraz, eskuak gizakiaren gorputz guztia irudikatuko luke

ez baita aurkitu. 1960ko hamarkadan, A. Leroi-Gourhan historialari ezagunak hipotesi horrekin bat egin zuen, eta esku "mutilatuak" zeinu hizkuntza baten adierazpena izan zitekeela iradoki zuen. Esku horiek zenbatzeko erabiltzen zituztela eta, beraz, esku mutilatuak zenbakiak direla uste dutenak ere badira. Baina 2018an *Journal of Paleolithic Archeology* aldizkarian argitaratutako ikerlan batek dio hatzak mutilatzea sakrifizio praktika ohikoa zela eta ez zaiela beste esanahirik bilatu behar.

Mundu osoko esku sorta horietan, gehienak ezkerreko eskuak dira. Piriinioetako Gargas kobazuloan, esaterako, ondo bereiz daitezkeen 150 eskuetatik 124 ezkerrekoak dira. Zenbaiten ustez, eskuineko eskuak lana sinbolizatuko luke eta ezkerrekoak, aldiz, espiritualtasuna. Baina bada beste azalpen prakti-

koago bat: eskuineko eskuaz margotzen baduzu, eredu bezala ezkerrekoa erabilteza da logikoena.

UNEDeko irakasle Ángel Rivera eta Mario Menéndezek esanahi orokorra behintzat ematen diete eskuoi: zati batek osotasuna adierazten du eta, beraz, eskuak gizakiaren gorputz guztia irudikatuko luke. Margolariak bere izatearen aztarna utziko zukeen eskuaren bidez, sinadura moduko bat.

2016an, Europar Batasunak *HandPas* proiektua bultzatu zuen eskuen misterioa argitze aldera, eta nazioarteko zein diziplinarteko lantalde bat aritu da hainbat kontu ikertzen. Eskuak Cromagnonen lana dira soilik ala Neanderthalekin harremanetan sortu zuten arte adierazpen hori? Eskuak espirituekin lotzeko erabiltzen zituzten? Pineroloko (Turin, Italia) Historiaurreko Arte Museoko zuzendari Dario Segliek dio ezin dugula erantzunik espero: "Iraganeko esku horiek mutuak dira, ezin diegu hitz egin arazi". Eta, hala ere, gaur egun, munduko txoko askotan, haurrak arte plastikoaren bidez adierazten hasten direnean, eskuak pinturaz zikindu eta gainazal batean markatzen dituzte, edota esku negatiboak egiten dituzte, adibidez, arkatzez silueta marraztuta. Hau da, 40.000 urte geroago, eskuak gizakiaren adierazpen artistiko oinarrikoenetakoa dira oraindik. ●

eskatu euskaraz eskaini



eskatu euskaraz eskaini euskaraz

Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun
hitzaren arabera izango
direla zure harremanak?

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



cámara de álava
arabako ganbera



enkomer



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

BERAKATZ EDO BARATXURI BAINA MUGIKOR



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Landare ia guztien ezaugarri nagusia geldirik ez baina mugitu gabe bizitzea da. Gose bada, egarri bada, hotzak erretzen, beroak kixkaltzen, dena datorkiola landareak han eutsi behar, kieto! Horrek buruhauste ugari dakarkie, baina milioika eta milioika urteren poderioz egunero datorkien ingurune, lur, klima eta abarreko egoera berrietara egokitzeko ikaragarriko gaitasuna garatu dute. Gure aurretik landareak baziren eta gure ondoren ere izango dira, dudarik ez egin.

Berakatz edo baratxuria (*Allium sativum*) ez da edozein landare. Euskal Wikipediak dioenez, berakatz da izen zaharrena, belar + latz du jatorri eta “belar gogor edo latz” esan nahi du. Gerokoa da baratxuri, baratze + txuri, baratzean sortzen den landare txuria, alegia. Haria galdu gabe, berakatz ez da edozein landare. Ez du nahi nonahi bizi. Hezetasuna, bustia, urasetutako lurra... finean ura ez zaio batere gustatzen. Berakatzak lur zakarrak, elkorrak, lur goseak maite ditu; ez lur emankorrak eta gutxiago buztin lur aberatsak. Hortik dator Euskal Herri hezean, itsasotik hurbilenean, tajuzko berakatzak egiteko dagoen zailtasuna. Lehen berakatz-buruak biltzeko landatzen zen. Horretarako, eguna luzatzen hasi baino lehenago landatu behar da, urte amaierako



solstizioaren aurretik, hotzak ederki jasan eta burua egiteko grina pizteko. Hemen, ordea, udaberri hezeak gogor jipoitzen du. Eguna gaua baino luzeagoa egiten denean, udaberriko ekinazioan, airea eta lurra epeltzen dira eta hezetasunarekin gorrina sortzen dion onddoa (*Puccinia allii*) suspertu egiten da, eta harrotu. Zaila da udara, eguna moztan hasten den solstiziora sano iristea, eta ordutik atzera biltzen da uzta...

Berakatz gure lurren giroa ezagutu izutu egiten da; gorriak datorzkiola badaki. Berakatz ez da, baina, edozein landare. Berakatz-atala, -lakatza, -lakaina, -zizterra edo -xixterra, -izterra, -azpia edo -alea ez da hazia, ez da erreboila ere, berez hozi- edo ernamuin-zurtoina da. Landatzen denean eta hezetasunaren susmoa hartu orduko sustrai indartsuak garatzen ditu eta atal hori lurretik kanpora ateratzeko gai da, ustel ez da-

din. Tropismo hidrofugoa duela esaten da, urak izutzen du eta mugitzeko gai da. Mugitu egiten da bai! Lur lehorraren baten bila. Horrek makina bat istorio sortu du: sorginek, ilargiak, izarrek eta abarrek lurretik atera eta mugitzen dituztela.

Gaur egun gure lurralde hezeko nekazariak berakatz jartzen dutenean batez ere berakatz-aietak jartzen dituzte. Aietak edo berdetan edo berakatz berriak, umotu gabeak, boladan daude eta ederki hazten dira. Ez da burua jaso nahi, hura elikatzeke aurretik sortzen duen hosto motots guria baizik, zurtoina edo kimua edo muskila edo aihena edo lastoa. Neguko gutzia da. Oso erraza da bere langintza, loreontzitxo bat nahikoa da: buru osoak sartu elkarren ondoan, bi behatz lur gainean jarri. Nik udan hasi eta udaberria etorri arte ilbeherero landatzen dut berakatzitxo bat, berakatz-herria. ●

ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi

Babesleak:



EKIOLIO

HERRITARREN ESTIMUA IRABAZI DUEN ARABAKO EKILORE ETA KOLTZA OLIOA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Nekazari familian jaio zen Fernando Santamaria arabarra, eta bide horretan egin zituen ikasketak. “Nekazaritza ikasketen ondoren, ikastaro bat jaso eta Frantziako lagun batekin olioia egiten ikasi nuen”, azaldu ditu Ekiolio proiektuaren hastapenak. Izan ere, Frantzian barna nekazari txikiak kalitatezko ekilore eta koltza olioia ekoizten zutela ikusi eta hemen gutxi garrata zegoen bide horri ekitea erabaki zuen, Ramon Lopez kidearekin batera. Hotzean presioa eginez ateratzen dute olioia, eta probatu duten herritarren eta hostalaritzaren erantzun onak lanean jarraitzeko indarra eman die.

KALITATE HANDIKO OLIOK

Santamariaren etxeko hamar hektareatan dute ekilorea eta koltza landatuta proiektuko kideek. “2019an ekilorearekin bakarrik hasi ginen, eta gerora pasatu ginen koltza ere egitera”, dio. Eraldaketa ere euren esku hartu zuten, olioia egiteko prentsa erosiz. “Hotzean egindako lehen presioarekin lortzen dugu olioia; oso olio ona da, ekilorearen ohikoa baino gozoagoa eta lodiagoa”, gehitu du. Ekilorearen ekoizpenaren erdia ekologikoan dute, gainera. “Egia



da oraindik ekilore olio ekologikoa saltzea ez dela hain erraza, bukaerako produktua garestiago ateratzen delako eta ez gaudelako horretan gastatzera ohituak”, dio.

Zuzeneko salmenta bidez merkaturatzen dute Santamariak eta Lopezek Ekiolio olioia: jatetxe askori saltzen diete, eta Arabako eta Gipuzkoako zenbait kooperatibak ere hartzen die. “Nafarroatik eta Bizkaitik ere eskatzen ari zaizkigu dagoeneko, baina oraindik ez digu denera iristeko adina eman, pixkanaka goaz. Hori bai, lurralde osora zabaltzea da gure asmoa”, dio.

“FAMA TXARRARI” BUELTA EMATEN

Ekilore olioia gurean ohikoagoa bada ere, koltzarena kontsumitzeko ohitura hartzea gehiago kostatzen ari da, Hegoaldean behintzat. Izan ere, 1981ean Espainian gertatu zen intoxikazio masiboak gaur arte iraun duen fama txarra eman zion, baina, Santamariak dioenez, badirudi irudi horri buelta ematen ari garela pixkanaka. “Azoketan-eta, jende asko ari da koltza olioia erosten, eta goi mailako sukaldean ere oso begi onez ikusten ari dira”, dio. Kontsumitzaileen artean, gainera, jende heldua ere bada-goela dio, hasiera batean pentsatzen zutenaren kontra.

20-30 bat egunez uzten dute koltza olioia ontzi batean dekantatzen, amaierako produktua garbi-garbi geratzeko. Santamariak nabarmendu duenez, propietate ugari ditu, Omega 6a kasu. “Oso pozik gaude momentuz bi olioak izaten ari diren erantzunarekin”, amaitu du. Elikadurarako ez ezik, beste bide batzuk jorratzeko asmoa ere badute, kosmetikakoa, esaterako. “Olioak propietate onak dituzte, egokia izan daiteke xaboi, krema eta bestelakoetan ere erabiltzeko”. ●

Herriraino
LARRABETZU

**LARRABETZUN,
EUSKARAZ BIZI**

www.larrabetzu.eus / udala@larrabetzu.eus
[Facebook.com/Larrabetzu](https://www.facebook.com/Larrabetzu)
[Twitter.com/larrabetzuudala](https://twitter.com/larrabetzuudala)
[Instagram.com/Larrabetzuko_udala](https://www.instagram.com/Larrabetzuko_udala)

EUSKARALDIA



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**





“ ”

Arriskua ikusten nuen finala plazako iruditik urrun geratzeko

Nerea Ibarzabal

Irundik estomagoan zuen lantza kendu zuen Baionan markinarrak, saio borobila osatuz eta lehen postua erdietsiz.

 ELIXABET ETXANDI

Baiona
azaroak 26

Saioko puntuaketa

Nerea Ibarzabal Salegi

671,5 puntu Baionan
(+ lehen itzuliko 673)= 1.344,5
puntu guztira

Sustrai Colina

Acordarrementeria

668puntu (+710)=1.378

Beñat Gaztelumendi Arandia

656,5 puntu (+716,5)=1.373

Julio Soto Ezkurdia

643,5 puntu (+686)=1.329,5

Unai Agirre Goia

639,5 puntu (+652,5)=1.292

Eñaut Martikorena Lizaso

584 puntu (+636,5)=1.220,5

Lauga aretoa

2.000 entzule



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Badirudi Euskal Herriko finala gertu duzula. Baionan aipatutako “ametsa” betetzeko bidean?

Ez nintzen ausartzen honekin amesten, amets handia delako eta txapelketako bidea luzea baita. Hori bai, eskatu nahi nion nire buruari fase guztiak igarotzea, lehenengo txapelketan egin nuen adina egiteko bigarreanean. Baina finalaren aukera hor dago. Honekin, ametsa oso ederra eta bete da.

Irunen jendea kexatu zen zure puntuazio apalarekin. Baionako lehen agurrean ere horren ondorioz lehia

egin beharraren zama aipatu duzu.

Irungoa liseritzea zaila zen. Uste nuen hobeto neramala. Irungoa pasatuta, kosta egin zitzaidan hurrengo saiora begira jartzea. Agur hori pentsatu nuen saiotik bi egunera-edo. Amorrutik edo zauritik sortutakoa da. Gerora, egunak igaro ahala, ez nintzen agur horretan bezala sentitzen. Lasaiago eta onartuagoa nuen egoera. Hala ere, agurra mantentzea erabaki nuen, indarra emateko eta ez amore emateko. Erdi nire burua konbentzitzeko trikimailua izan zen agurrarena.

Badirudi emakume batek baino

Saioko bertsoaldi puntuatuena

Sustrai Colina **ganbarako gaian:**

Bihar da egun handia. Ez joatea erabaki duzu.

I

Agian ni entzutea
egingo zaizu arraro
bizkarrean daramaten
hilkutxa bate(a)n bainago.
Familiko bazkaria
bihar genuen (e)ta klaro...
Lehenagotik ere nengo(e)n
preso hartuta zeharo.
Dena ez denez konpontzen
txuleta-arkume (e)ta ardo
mundu hontatik joan naiz
neure sen ta neure garbo.
Min hau jasatea baino
libre izatea nahiago
bizitza antzerkia da
(e)ta heriotza gehiago.

II

Elizan lehen ilaran
ikusten ditut gehienak
familiko bazkarian
bihar egongo direnak.
Konpartituko al dituzte
euren min (e)ta sentipenak?
Konturatu familian
sortzen direla problemak
nahiz (e)ta liberazio bat
ekarri azken orenak
susmoa daukat nirekin
joango direla denak:
oroitzapenen damuak
damuen oroitzapenak
sentitzen nituenak (e)ta
kontakten ez nituenak.

III

Jadanik alferrik ditut
zuen txuleta (e)ta arrai(n)
bilakatu bainauzue
neure buruaren etsai
elizan agurtzeraino
nahiz eta nik ez nuen nahi
(nonbait ohiturak bigarren
azala izaten darrari...).
Ikusten ditut Otegi,
Chivite (e)ta Etxegarai
bertsoa Egañak bota du
(bai, oraindik bizi da, bai)
nahiz eta izarren hautsa
bilakatzen den bizigai
bihar ez naiz joango eta
egin zazue lo lasai.

gehiagok kantatuko duela Iruñean. Gauzak aldatzen direnaren seinale?

Bertso plaza aldatu da azken urteetan. Momentu batean arriskua ikusten nuen finala geratzeko plazako iruditik urrun, ez izatea hor ibiltzen diren ahotsekiko errepresentazio leiala. 2017tik hona aldaketa bat sumatu dut zentzu honetan bertsozalegoarengan, emakume bertsolariak entzuteko dagoen moduan edo gerturatu den jende motarengatik. 2017ko leloa izan zen: "Ea bigarren emakume bat finalera sartzen den". Ematen zuen handik zetorrela aldaketa. Aldaketa beste bide batetik etorri da, ordea. Aurten "bigarren emakumea" ere ez da aski. Ez da erreal: bi baino askoz gehiago daude maila bikainean finalean jardun daitezkeenak.

Baionan txalo zaparrada indartsuak aditzen ziren zure izenarekin. Publikoaren erreakzioek eragina dute bertsolariarengan?

Bai. Konexioa da gure helburua: jendearekin konektatzea, sentitzea parean jasotzen dutela eta zuri itzultzen. Kanal hori itxita sumatzen duzunean sortzen dira urduritzeko eta gaizki kantatzeko egoerak. Eta alderantziz: kanal hori zabalik eta emankor denean dena doa hobeto. Konfiantza datorkizu eta honek laguntzen du hobeto kantatzen.

Txapelketan sortu dituzun ganbarakoek markatu dute

gehien. Zu nola sentitu zara utzi duzun bakarkakoekin?

Pozik nago jendeari iritsi bazaizkio. Gustatzen zait bakarrik jardutea. Hiru ganbarakoak barrutik oso ezberdinki bizi izan ditut. Bertsoak berak harritzen nau ni ere aldiro. Batzutan ez dakizu egoera batetik nola atera, edo zein gai etorriko zaizun burura. Ez nekien nik ere oso ondo udazken honetan nondik joko nuen, nahiz eta beti pentsatu gustuko dituzun gauzetan. ●

Ganbarakoa

Baionakoaren biharamunean, zein aho zaporerekin geratzen zara?

Ona eta espero gabekoa. Ez nuen finalerako hainbeste aukerarekin amaitzerik espero. Uste nuen estuago izango zela edo kanpoan egongo nintzela, beraz pozik.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



BILBO


📅 Abenduak 3, larunbata, 17:00
📍 Bizkaia Frontoia



Aitor
Mendiluze
Gonzalez



Amets
Arzallus
Antia



Joanes
Illarregi
Marzol



Jone
Uria
Albizuri



Maddalen
Arzallus
Antia



Saioa
Aikaiza
Guallar

FINALAURREKOA



LIBURUA

Etena

▬ MADDI GALDOS ARETA

Naufragioaren aztarnategi edo porrot egindako proiektuen nola-baiteko antologia ei dugu Angel Errok (Burlata, 1978) argitaratu berri duen olerki bilduma. Izenburua bera atentzioa emateko modukoa da: *Poema liburu bat -irakurtzeko jarraibideak-* (Erein, 2022). Liburua amaituta irakurtzeari buruzko galderak geratuko zaizkio irakurleari, jarraibideok ez baitute zehazten, besteak beste, azaleko irudiarri beha igaro beharreko denbora, zein isilean leitzea aski den edo ozenki egin behar den nahitaez. Ekina omen ikasteko bide, ordea, eta poemok eskaintzen dute, beraz, trebatzeko aukera.

41 olerki bildu ditu burlatarrak bere ibilbideko hirugarrena den poema-bilduma honetan. Hertsiki gidaliburu ez dugun arren, poesia eta literaturarako gonbita dira orriok: esplizituki ere aurkeztu eta hezurramitzen dira forma eta baliabide literarioak, bestelako arte adierazpideak hurbiltzen dira hitzetara, eta birformulatzearen eta berrinterpretatzearen xendrak arakutzen dira, tartean, dagoeneko urruneko diren leku eta denborekiko distantziak laburtuta. Poesiak eskaintzen

duen eten edo uneari eutsi eta amore ez ematea proposatzen da, finean, urrats saihetsezin bakartzat.

Beste gai batzuk ere badakarzkigu liburuak: tartean, ugariak dira maitasuna erdigune duten poemak. Poeten bekatu nekagarria omen den bigarren pertsonaren erabileraz eta "maitea" deiturikoari zuzendutakoez gain badira maitasunaren beraren inguruan hausnarrarazten duten lerroak, besteak beste, *Gure maitasuna* poeman. Halaber, nabarmentzekoak dira amari zuzendutakoak. Maitasuna lotu egiten zaio olerkiotan minari, baita dolu, hastio, oroimen eta ahanzturari ere: "Ama, egunero egiten ditut gauzak / hilda egon ez zaitezen (...) / eta sekretuki has-tio dut / bizitzaz gelditzen zaidana". Horien artean *Oinazearen bariazioak* poema dugu aipagarri, gogorra dena eder adie-



**POEMA LIBURU
BAT -IRAKURTZEKO
JARRAIBIDEAK-
ANGEL ERRO
EREIN, 2022**


razteko idazketa poetikoak eskaintzen dituen aukeren isla baita.

Segidan irakur daitezke, hasi eta buka, 41 olerkiok. Hala ere, bildumak ez du, ezinbestean, halako irakurketarik galdegiten: hari bakarraren ezean, joan etorrika leitu daiteke, irakurleak nahieran, errepika, erritmo eta errituari men egin eta norberaren naufragioetan ere sose-gua topatzeko saiakeran. ●



Irurako udala

San Migel plaza 1, 20271
udala@irura.eus
www.irura.eus



MUSIKA

Anna Bolena xarmagarria

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Donizettiren *Anna Bolena* opera handi, arranditsu eta ahots zailtasunez beteriko horietako bat da. Hau da, handikiro gozatzeko opera bat. Eta OLBEk ekarri digun ekoizpena partituraren eta libretoaren bertute guztiei etekina ateratzen dieten horietakoa izan da. Hau da, pelikula bat balitz, krispetekin hasi eta eserlektutik mugitzen ez garen horietakoa izango litzateke, ezta begiak kliskatu ere.

Ikusleek oso ondo pasatu zuten. Eta ez da harriztekoa. Henrike VIII.a erregearen abentura bitxiak eta ezkontza-esperientzia dohakabe eta kriminalek entzuleen morboa pizten dute beti. Eta Anna Bolena gaixoaren kasua benetan berezia izan zen.

Baina hemen musikaz hitz egingo dugu. Eta, ikuspegi artistikotik, eskainitako ikuskizuna bikaina izan zen. Izan genuen Anna Bolenak benetako filigranak egin zituen bere ahotsarekin. Joyce El-Khoury sopranoak, libanoar jatorrikoa, malgutasun, sentsibiltate, potentzia eta distira lezioak eman zituen bere tinbrean. *Va infelice* azken arian bereziki liluratuta



utzi gintuen, bere kantuan ñabardura bikainak erakutsiz.

Baina uste dut Silvia Tro Santafé mezo valentziarra ez zela atzean geratu. Bikain eta segurtasunez jokatu zuen Jane Seymouren papera, ñabardura askoko rola, non interpretatzeko talentu handia erakutsi zuen.

Bestalde, Marko Mimica baxu kroaziarrak Henrike VIII.a sinesgarri eta ahotsakontasun handikoa egin bazuen ere, ez dut uste oker nabilenik esaten badut saioaren gizonezko ahotsen artean, Celso Albelo tenorearena nabarmendu zela bereziki, Percyren rolean. Teknika ezin hobea erabiliz, erregistro agudo seguru eta garbia erakutsi zuen une oro, entzu-

teko zoragarria. Une bikainak izan zituen, baina azpimarratuko nuke *Vivi tu... Nel veder la tua costanza* aria, segurtasun harriarriarekin kantatuta.


Bestalde, eszenografia xeheetasunez zainduta egon zen. Azkenaldian egiten diren muntaketa minimalistetatik urrun, *Anna Bolena* honek hedapen eszeniko nabarmena izan zuen Gary McCann lan bikainari esker.

Eta, amaitzeko, bai Bilbao Orkestra Sinfonikoaren lanak, Jordi Bernacerren gidaritzak delikatu eta zorrotzarekin, bai Bilboko Opera Abesbatzaren aktuzioak, soila eta ongi enpastatua, lagundu zuten opera saio hau gogoratzeko saio bat izan zedin. ●

OLBE-k antolatutako Donizettiren *Anna Bolena* opera. Bilbao Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Jordi Bernacer. Bilboko Opera Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Bakarlariak:** Joyce El-Khoury (sopranoa), Silvia Tro Santafé (mezzo), Marko Mimica (baxua), Celso Albelo (tenorea), Anna Tobella (mezzo), José Manuel Díaz (baritonoa). **Eszena zuzendaria:** Stefano Mazzonis di Pralafera. **Eszenografia:** Gary McCann. **Lekua:** Euskalduna Jauregia. **Data:** azaroaren 19a.

Zumaia euskaraz bizitzeko da.

Zumaia Udala  ZUMAIA BIZITZETIKO DA





Bidaia bat norabide guztietan

AMETS ARANGUREN ALEX RADEMAKERS

Asteazken, ostegun eta ostiralez bete du Sílvia Pérez Cruzek Victoria Eugenia, beste behin. 2020aren hondarretan ateratako *Farsa (género imposible)* diskoaren birari bukaera eman zion kontzertuokin. Donostian hasi eta Donostian buka. Hiru formatu desberdinetan aurkeztu du lana, gaurkoa formaturik berezienean: gela baten barrutik.

Bere etxera gonbidatu gaitu abeslariak, bere logelara. Edo bere logelatako batera. Askotan azpimarratzen du batez ere musikaren bidean ibili arren, diziplina artistiko guztiekiko duela erakarpen berezia eta horren erakusle da azken disko hau. Diziplinartekotasuna landu du sakonki musikari katalanak miresten dituen dantzari, poeta eta aktoreekin, besteak beste. Eta gaurkoan bera da ohol-tza gainean adierazpen artistiko horiek guztiak gorpuzten dituen.

Azken lau urteetan hamar bat kontzertu-edo ikusiko nizkion, baina halako sen-

tsaziorik sekula ez dut atera antzokitik. Betekada emozionala izan da, zentzu guztietan: kontrol tekniko harrigarria edertasunez jantzita, indar handiz beteriko irudiak bata bestearen atzetik, erregistro/kode/giro aldaketa etengabeak... *Uf, gehiegi*, esan digu lagun batek kontzertutik atera berritan. Digestio luzea beharko duten horietakoa izan da, bai. Zer, noiz, zenbat eta nola eskaini asmatzeko gaitasun berezia du emakume honek. Aritu da baso eta erreketako irudien proiektioari zuzenean musika jartzen, ohean buruz gora etzanda kantatzen, belauniko, dantzatan... berdin zaio. Berdin zaion bezala gitarra bat ala beste hartu, teklatuarekin egin, perkusioaz lagunduta ala a capella. Inoiz bizi izan dudak kontzerturik gordina izan da, hitzaren zentzurik onenean.

Artistak bidaia publikoari eskaintzen badio ere, bera da gidari. Gaurkoan aipatu du, *uste dut hau izan dela egin dudan onena*, emanaldiari erreferentzia eginez.

SÍLVIA PÉREZ CRUZ

NOIZ: azaroaren 24ean

NON: Victoria Eugenia Antzokia (Donostia)

Bere burua ere harritu eta hunkitzera heldu da eta hunkidura horrek espero ez zuen leku batean jarri dio gorputza. Hor-tik gonbidatu gaitu harekin azken biak kantatzera.

Lagun batek esan zidan behin maite zuela pentsatzea gauza guztiek gordetzen dutela eurengan izan daitezkeen hori dena, hau da, aukera guztiak biltzen dituela edozerk bere baitan. Izan proiektu bat, izan harreman bat edo izan kantu bat (edo hala ulertu nuen nik). Eta gure ekin-tzak direla hauek bide batetik edo beste batetik joatera bideratuko dituztenak. Pérez Cruzek bere baitan biltzen dituen aukera horiek denak erakutsi eta guztietatik aldi berean ibiltzeko gaitasuna du. Horrek egiten du desberdin, besteak beste. Eta hori dena, gaurkoan gela barrutik. Etxeko atea ireki eta publikoaren aurrean gelako paretak parez pare zabal-tzen dituen artistari deus gutxi gehiago eska dakioko. ●

Mireia Alduncin Zamora

@ESTEREOTIPAK



TERAPIA ERE FEMINISTA

"Nik medikuntza ikasi nahi nuen, baina irakasle batek, agian bere borondate onenarekin, ezetz esan zidan, hobe nuela erizaintza ikasi, oso sentibera nintzela argudiatuta. Sekulako kolpea izan zen niretzat. Ez nuen ulertu zergatik. Eta gerora ulertu dut: genero estereotipoak. Halaber, egoera zaugarri batean nengoen, eta ez nuen eskurik sentitu. Hortik, Haur Hezkuntza ikatea erabaki nuen, haserretik, frustraziotik eta minetik. Beste haurrei berdina ez gertatzea nuen helburu. Baina, azkenean, nirea psikologiaren bidea dela jabetu nintzen. Eta egun, terapeuta feminista naiz".

"Guk ez dugu emakumeen osasun mentala landu nahi, baizik eta osasun mentala feminismotik"

Jendartean eta osasunean eraldaketa eragiteko desiraz, emakume talde batek urtebete darama elkartzen, eta Estereotipak elkarte sortu dute berriki. Osasun mentala generoaren estereotipoekin lotzeko praktika baztertu nahi dute. Mireia Alduncin Zamora bertako kidea da. Psikologia ikasketetan "gabezia ugari" identifikatu zituen gai honen inguruan, eta orain, "eraldaketa" bultzatu arazteko prest dago.

 **AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ**  **IRANTZU PASTOR**

Estereotipak. Nola heldu zara horra?

Ibilbide profesionalaren lehen urratsetan nahiko bakarrik sentitu nintzen. Zorte onez, hainbat kidek babestu izan naute nire jardun eremuan, terapia gidatzeko eta jarduteko moduan, alegia, eta ildo bereetik segitzeko animatzen ninduten. Onespina nuen arren, eraldaketa sistematikoak gauzatzea zaila da bakarrik egonda. Whatsapp talde batera gonbidapen bat heldu zitzaidan: bi emakumek osasun mentala eta emakumearen artean hitz egiteko espazio bat zabaldu nahi zutela zioen, eta bertaratu egin nintzen. Hainbat emakume elkartu ginen eta aurrera segitzeko nahia nabarmendu zen. Beraz, elkartzen segitu genuen eta elkarteari forma ematen hasi ginen.

Zer hutsune betetzera dator Estereotipak?

Genero estereotipoak oraindik ere oso presente daude egunerokoan, oso umetatik, gainera. Eta heldua-

rora iritsi ostean ere, ez dira desagertzen, zoritxarrez. Zer esanik ez osasun mentalaren alorrean. Oso errotuta daude. Egia da jende asko dabilela lanean gaiaren inguruan, baina ez dago Euskal Herri mailako elkarterik. Beraz, antolatzea erabaki genuen lehen batzarretik. Buru osasun feministaz hitz egin, gogoetatu eta aldarrikapenak egiteko hutsunea betetzera gatoz, indartsu.

Bestalde, sexologia ere ikasi nuen, eta karrera amaierako egitasmoa hilekoaren zikloaren inguruan egin nuen. Eta hilekoa duten gorputzak ziklikoak direla erdi-erdian jarri dugu elkartean. Gure zikloak sentitu eta entzun behar ditugu. Pertsona bakoitzaren errealitatea errespetatuz jardun behar dugula uste dugu, bestela oso egoera larriak sortu ditzakegu, ohartu ere egin gabe, ezjakintasunetik. Kontuz horrekin!

Zein da zuen bide orria?

Urte bateko ibilbidea besterik ez dugu. Oso ttipiak gara, baina oso argi dugu kanpoko eta barruko lanak egin



"Emakumeak dituen ezaugarri asko gaitasun gisa ulertuak izan dira, baina gaitasun horiek erantzukizun bilakatzen dira, eta, beraz, karga".

behar ditugula. Barne lan handia egin dugu orain arte. Bilera asko elkarteari forma emateko, baina bereziki taldeari forma emateko. Gogoeta ugari egin ditugu, galdera asko erantzuten saiatu gara. Eta bigarren urratsa kalera ateratzea izan da. Buru osasun feminista aldarrikatu eta lantzeko tailerrak eskaintzen hasi gara, adibidez. Izan ere, guk ez dugu emakumeen osasun mentala landu nahi, baizik eta osasun mentala feministotik. Oso ezberdina da. Emakumean zentratu nahi dugu, ikuspegi feministarekin. Hori da aldarrikatzen duguna. Momentuz emakumeari bideraturik gaude, ez dugu gizonekin lan egiten, baina haiekin eta haietaz ere hitz egin behar dugu.

Nola ikusten dugu egoera? Nola dugu buru osasuna?

Osasun mentala, gezurra badirudi ere, une on batean dago historikoki. Geroz eta jende gehiagok adierazten du terapiaren beharra edo terapian dagoela, eta hori aurrera urrats garrantzitsua da. Terapiari aitortza egitea osasun mentala aldea da.

Emakume asko ikusten ditut kontsultan, eta bakarrik daudela sentitzen dute hasieran. Gertatzen zaien "hori" haiei bakarrik gertatzen zaielakoan. Baina ez dela hala azaltzea da nire helburuetako bat. Osasun mentala ere politizatzea garrantzitsua da.

Emakumea eta karga neuronalak asko aipatzen da orain.

Bai, eta mahaigaineratu behar dugu. Historikoki emakumeoi gertatzen zaizkigun hainbat kontu eta arazo biologikotzat hartuak eta tratatuak izan dira. Sintomatologia ugari sexu-generoari lotu izan zaizkio, eta ez da horrela. Zorionez, gauzak aldatzen hasi gara. Emakumei gertatzen ari zaiena ez da kasualitatea eta ez da biologikoa. Ulerkera hori, iruzur inposatu hori, aldatu behar dugu. Eta bai, hor karga neuronalak dago, besteak beste.

Gainera, buruko osasuna bigarren plano batean utzi izan da beti. Aldiz, edozein zauri edo min fisiko oso azkar sendatu edo artatzeko ohitura dugu.

Emakumeak dituen ezaugarri asko gaitasun gisa ulertuak izan dira. Bi gauza batera egitearena, adibidez, eta hori ez da broma. Baina gaitasun horiek erantzukizun bilakatzen dira, eta, beraz, karga. Gainera, hori konpontzeko arduraren modu pertsonalean bideratu izan da. Eta ez, hori kolektiboa da, gizartearen arduraren. Jendartean dago. Ez da indibiduala, politikoa baizik. Eta Estereotipak elkartean bide horretan dihardugu.

Nazioartean aliatuak baduzue?

Geurea bezalakorik bere horretan ez, baina gaia mahai gainean dago. Mugimendu feministan, adibidez, eta Elkar Laguntzarako taldeetan. Badago ere Orgullo Loco (Harrotasun Eroa) izeneko mugimendua. Denengana gerturatu nahiko genituzke horiek eta, bide batez, baita taldea zabaldu ere. Edonor izan daiteke bertako kide, ez da osasungintzan aritu behar derrigorrez. Azken batean, jendartearen errealitatea eta aniztasuna ere islatu nahi ditugu elkarrearen egunerokoan. Horrek aberastu du du gure jarduna, dudarik gabe. ●

Kontzientziazio-kanpainak (tragikomedia bat)

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bai gauza ederra direla kontzientziazio-kanpainak. Liluratuta egoten naiz haiei begira. Gainera, udazken-negua oso urtaro aproposak dira horrelakoak agertzen hasteko. Gure herri eta hirietan endemikoa den espezie horrek zenbait baldintza behar izaten ditu ondo ugaltzeko, eta sasoi honetan gehienak gertatzen dira batera: lehenbizi, urte amaiera izatea; bigarren, udaleko sailen batek non kolokatu ez dakien diru-soberakinak edukitzea; eta hirugarren, udaleko sail horren burua den zinegotziak lehengusu bat –edo aspaldiko kolega bat– edukitzea, kasualitatez komunikazio-enpresa bat daukana. Kondizio horiek betez gero, erraz erreproduzitzen da kontzientziazio-kanpaina, urik eta ezer bota gabe.

Segun eta ze kasutan, ongarri pixka bat bai, eskertzen dute. Beste kasu askotan, literalki ongarria dira. Adibidez, Santurtziko Udalak kaka-mokorro erraldoi bat jarri zuen joan den astean herriaren erdi-erdian. Txorongo santurtziarra puzten den horietakoa da –ez pentsa benetakoa denik–, eta guztioi eragiten digun problema sozial larri batez jabetu gaitezten ipini dute udal-agintariak: txakur-kakak.

Kanpainaren berri ematen duen notizia irakurtzea mundu ezezagun eta sorpresaz beteriko batean murgiltzearen parekoa da. Honakoa da lema: “Zure telefonoan baino ez da barragarria. Zapaltzen dugunean ez du graziaz egiten”. Bigarren hori gauza jakina da, kuantu. Lehenbizikoak utzi nau jo eta ma: txakurren jabeek dauzkaten ohitura sozialak asko ezagutzen ez ditudanez, orain arte inoiz ez nuen pentsatu lau hankako izaki horiek dardar pixka bat egin ondoren gorozkia espulsatzen zutenean, haien jabeek,



ez jasotzeaz gain, argazkiak egiten zizkietenik ahalegin digestibo horren emaitzei. Lagunei erakusteko? Txakurraren osasun onaz fardatzeko? Gauza batzuk jakin gabe ere lasai bizi liteke pertsona, eta hemen utziko dugu.

Beste kontu batzuek, berriz, gehiago jakin nahi nuke, momentuz informazio handirik agertu ez den arren. Oso ondo baitago txakur kakak zakarrontzira botatzeko eskatzea, baina gero zakarrontzia non husten den ere ez da munta txikiko problema. Bizkaiak, ustez, soluzio finala emana zion asuntuari: Zabalgarbiko erraustegia. Dena nahasian jaso, hara eraman, erre. *Finita comedia*. Eredu horren predikatzaileek ziotenez, hondakinak jasotzeko beste edozein metodok zabortegeiak derrigor martxan edukitzea eskatzen zuen. Erraustegiak ez? Ba bizi garen urte honetan, baietz dirudi: Jaurlaritzak joan den astean eman du hasierako baimena 1976tik itxita zegoen

Artxandako zabortegea berriz martxan jartzeko. “Berriz Recycling” izeneko enpresa batek kudeatuko du. Ez dakiugu Zaldibarko beste Recycling horien familiakoa den, baina apellidu horrekin, zer atera daiteke gaizki?

Zabortegei gehiago ere berraktibatuko dira: Gipuzkoan Epelekoa berriz martxan nahi dute –2018tik zegoen itxita– eta Jaurlaritzaren planen arabera, handitu egingo dituzte Igorre, Bisbieta eta Betearte ere –gauza hauei izenak jartzeko oso jende katxondoa dabil, benetan–. Total, lehen hondakinak non sartu zen problema. Orain, horrez gain, Zubieta ondoan detektatutakoa kontuan izanda, kezkatu beharko dugu haien parte bat erretzeak sortutako kutsaduraz ere. Baina lasai, gure instituzioek badaukate plan bat. Aurki ikusiko dugu gas-maskarak ondo erabiltzeko kontzientziazio-kanpaina nik uste, txapak eta guzti: zuk zer izan nahi duzu, Dioxilasai ala Furanoguai? ●

Ipar Euskal Herrian, Nafarroa Hegoaldean edo Trebiñun

Euskara ikasten ari zara?

ARGIA aldizkaria doan bidaliko dizugu

euskara ofizial ez den lekuetan
euskara ikasten ari zaretenoi.
Merezi duzuelako eta animatu
nahi zaituztegulako.

Interesatzen bazaizu, idatzi edo deitu:
komunitatea@argia.eus (+34) 943 37 15 45

Egin ARGIAkoa

Munduan hainbat hizkuntza daude
hizkuntza bat mundua da,
hitz bakarrean mundu bat dago
gure munduan euskara
hitz egitean bi mundu biltzen
dira bakar batetara
eta euskaraz hitz bakoitzean
mundura zabaltzen gara.



EUSKARAZ ERE,
NATURALTASUNEZ